

# ANDOAINGO ALBEITARI ETA ALBAITARIAK (1781-1983)

Jose Manuel Etxaniz Makazaga\*

Itzulpena: Arkaitz Goikoetxea

\* Albaitaritzako doktorea.

*Egileak, Andoain herri gipuzkoarraren kokapen geografikoa azaltzen du, baita bertako ekonomiaren bilakaera.*

*Jaiotzetik, auzotasunagatik edo lanpostua bertan izanagatik herri honekin lotuta izan diren ferratzaile, "albeitare" eta albitari batzuen nominaren berri biltzen du eta euren azalpen biografikoa eginez, beren lanbidea bete bitartean jazotako pasadizo batzuk deskribatzen ditu.*

*Andoain. Perratzaileak. Albaitariak. Beterinarioak.*

*El autor sitúa geográficamente la villa guipuzcoana de Andoain y la evolución de su economía.*

*Recoge la nomina de algunos de los herradores, albéitares y veterinarios vinculados por nacimiento, vecindad o destino profesional a esta localidad, haciendo una semblanza biográfica de los mismos y describiendo algunas anécdotas acaecidas durante su ejercicio profesional.*

*Andoain. Herradores. Albéitares. Veterinarios. Matadero. Inspección de Carnes.*

*The author geographically situates the Gipuzkoan town of Andoain, the evolution of its economy.*

*It takes the relation of some of the blacksmith and veterinarian linked by birth, area or professional assignment to this town, making a biographical sketch of them and describing some of anecdotes happened during the course of his duties.*

*Andoain. Blacksmiths. Veterinary surgeons.*

#### **Oharra:**

*Lan hau gaztelaniaz argitaratu dute Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen LXV-2-2009 Buletinean; egilearen ibilbidea zein den jakinda, eta gure udalerriari lotu-lotua dagoen lana egin duela ikusita, iruditzen zaigu berez dagokiola leku bat gure aldizkarian. Leku hori ez ezik, eskerrak ere eman nahi dizkiogu, bere eskuza-baltasunagatik.*

*Albeitar terminoarekin, nagusiki, zaldi-azienden ferratzaileak eta osagileak izendatzen ziren bere garaian, baina gerora, beste animalietara ere hedatu zuten beren jarduna. Profesional tituludunak ziren, eta Errege Auzitegi Protoalbeitaria Eskolan gainditu behar izaten zuten azterketa, Madrilén. Albaitariak gerora agertu ziren, 1793tik aurrera, hain zuzen, orduan jarri baitzuten abian lehen Albaitaritzza Eskola. Hasieran, karga-animaliez arduratzen ziren, baina gerora, animalia guztien osagiletzat hartu izan dira. Albeitaritzza desagerrarazi egin zuten 1847ko abuztuaren 19ko Errege Dekretuaren bidez, eta handik aurrera, albitari tituluak soilik eman zituzten. Euskaraz, bistan denez, jatorri bera dute bi hitzek.*

## ESKEMA

### ANDOAIN.

#### 1. BEHI-AZIENDEN FERRATZAILEA.

- 1.1. Jose Juan Zumalacarrengui Zaldua.

#### 2. ALBEITARI FERRATZAILEAK.

- 2.1. Pablo Sorondo Zuloaga.
- 2.2. Javier M<sup>a</sup> Azcue Carrera.
- 2.3. Juan Bautista Yarza Ibarbia.
- 2.4. Jose Antonio Cipitria Mendia.
- 2.5. Josef Maria Donato Sorondo Lecuona.
- 2.6. Francisco Miguel Ariztimuño Belanzategui.

#### 3. ALBAITARIAK.

- 3.1. Francisco Javier Aramburu Iriarte.
- 3.2. Jose Joaquin Olaverria Zubeldia.
- 3.3. Rafael Erro Castillo.
- 3.4. Francisco Oquiñena Castillo.
- 3.5. Dimas-Gregorio Oquiñena Erro.
- 3.6. Jose Larreta Aguirre.
- 3.7. Jesus Oquiñena Erro.
- 3.8. Manuel Irusta Zabala.
- 3.9. Jose Antonio Serna Rujas.
- 3.10. Francisco Olivar Olivar.
- 3.11. Francisco Iraola Salsamendi.
- 3.12. Candido Mendizabal Cipitria.

### ANDOAIN.

Oria ibaiak itsasorantz egiten duen bidean, hantxe dago Andoaingo herria, zabalgunen batean. Oria ez ezik, Leitzarari ibaiaren pasatzen da Andoaindik, eta mendirik ere ez du falta inguruan. Herria zaintzen bezala, hortxe daude Adarra, Buruntza, Belkoain eta Usobelartza. Donostialdea deitzen den eskualdean dago, Donostiatik 15 kilometrotara, eta hainbat herrirekin egiten du muga: Aduna, Villabona, Berastegiko Eldua auzoa, Elduain, Lasarte-Oria, Urnieta, Zizurkil eta Donostiako Zubieta auzoekin.

Biztanleak 14.000 baino gehiago ditu, eta 27 kilometro koadroko hedadura.

Bi irin-errota eta burdinola bat zituen Leitzarari ibaiaren bazterretan, eta irundegi bat, XIX. mendearen erdialdean sortua, zeinak langile asko eduki zituen bere garaian, emakumezkoak bezala gizonezkoak. Jarduera horiek kenduta, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruan eratua zegoen Andoaineko ekonomia. Gaur egun, industriak leku handia hartzen du, eta mekanizatzeko lanei eta materialen tratamenduari lotuta daude, nagusiki: metal-kautxua, armak, papera, zuntz sintetikoak, ortopedia-materialak, automozio-piezak, produktu kimikoak, igogailuak...

Monumentu zibil eta erlijiosoen artetik batzuk nabarmentzekotan, hauek bereiz litezke: parrokia, Isturitzaga dorretxea, udaletxea (XVIII. mendekoa), eta Bastero Kulturgunea, 2003an inauguratu zuten eraikin abangoardista.

## 1. BEHI-AZIENDEN FERRATZAILEA.

### 1.1. Jose Juan Zumalacarregui Zaldua (Andoain, 1832/01/04- ?).

Manuel Zumalacarregui Unzurrunzaga eta Maria Jesus Zaldua Arribillaga<sup>1</sup> izan zituen guraso, eta bost senidetan zaharrena izan zen.

1860ko apirilaren 17an ezkondu zen, Alegiako parrokian, Micaela Arin Arreguirekin<sup>2</sup>, eta guk dakigula, bost seme-alaba izan zituzten Andoainen.

Jose Juan Zumalacarregui Zalduak non eta zer ikasi zuen bilatu nahian hasi, eta argitalpen profesional batean aurkitu dugu haren berri, *La Veterinaria Española*, revista profesional y científica izenekoan, alegia. Argitalpen hori, beste baten jarraipen moduan hasi ziren argitaratzen, *Eco de la Veterinaria*, órgano oficial de las sociedades *La Unión Veterinaria* y *Los Escolares Veterinarios* delakoaren orde, hain zuzen. Madrilen argitaratzen zuten, Leoncio F. Gallego jauna zuzendari zuela, eta 459. zenbakian, 1870. urteko apirilaren 20koan<sup>3</sup>, Eskola Estatistika bat ekarri zuen; hor ageri da ikasketen amaierako azterketa Zaragozan egin zuten ikasleen zerrenda, Bigarren mailako Albaitarien, Zikiratzaileen eta Behi-azienden Ferratzaileen Eskolan egin zutenena, hain zuzen ere, eta azken espezialitate horretako ikasleen artean ageri da gure protagonista, erregistroko 2. zenbakiarekin. 1869ko urriaren 5ean lortu zuen titulua, 120 ezkutu jarri eta gero, tasak ordaintzeko.

## 2. ALBEITARI FERRATZAILEAK.

### 2.1. Pablo Sorondo Zuloaga (Andoain, 1781-1864/06/10).

Andoainen jaio zen, 1781ean<sup>4</sup>. Pablo Sorondo zuen aita, Andoaingoa, eta Maria Angela Zuloaga ama, Berastegiko alaba.

<sup>1</sup> Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa (GEAH). Andoaingo Parrokia, 8. Bataio-liburua, 110. orrialdearen atzealdea, 2. idazpena.

<sup>2</sup> GEAH. Alegiako Parrokia, 3. Ezkontza-liburua, 203. orrialdearen atzealdea, 3. idazpena.

<sup>3</sup> Madrilgo Albaitaritza Fakultateko Artxibo Historikoa (MAFAH). Hemeroteka. M-0091.

<sup>4</sup> GEAH. Garai horretako Bataio-liburua falta da.

Bergarako Udal Artxiboan, Pablo Sorondoren berri ageri da. Marcelino Zabala-ren ikasle izan zela esaten du, 1797tik 1802ra<sup>5</sup>, eta Ferratzailearen eta Albaitaria-ren Artea eta Gaitasuna bereganatzeko azterketa egin zuela gero, Madrilgo Errege Protoalbeitarian.

Pablaren aita, Pablo Sorondo hura ere, Bergarako ohiko alkateari (egun epaile deituko genukeenari) zuzendu zitzaion 1802ko martxoaren 10ean, eta eskatu zion notario aurreko lekukotza bidal diezaiola, haren seme Pablok Albaitari azterketara aurkezteko modua izan zezan Auzitegi Protoalbeitaria Eskolan.


*“Pablo de Sorondo, vecino de la Villa de Andoain, padre y administrador de la persona y bienes de Pablo de Sorondo vecino en la actualidad de Madrid, ante V comparezco y digo que con la mira de habilitarse en la facultad de Albéitar y Herrador ha cursado con Marcelino de Zabala de esa vecindad por espacio de cinco años durante los cuales ha adquirido el conocimiento y suficiencia necesarios para ser examinado cumpliendo exactamente las condiciones exigidas por este Maestro, por lo tanto,*

*A V pido y suplico se sirva mandar recibir información al infrascripto al tenor de con citación del Síndico Principal que bajo la misma certifique Marcelino la verdad en cuanto a la relación hecha y evacuado todo se me envíe original, para los efectos que hubiere lugar.*

*Firmado: Pablo de Sorondo”.*

Bergarako hiru maisu albeitar eta ferratzailek eman zuten haren aldeko lekukotza, Pedro Domingo Urruzuno eskribauaren aurrean, eta baieztatu zuten Marcelino Zabala-ren etxean ikasi zuela: Lucas Pedro Martínez de Arroyok, Marcelino Zabala eta Pedro Ascensio Larrazak.

*“Marcelino de Zabala, Maestro Albeytar y Herrador, vecino de la Villa de Vergara, testigo presentado y jurado, dijo: Que es cierto que Pablo de Sorondo estuvo como aprendiz de albéitar y herrador, que estuvo en su compañía por espacio de cinco años y ocho meses hasta que se despidió para pasar a la Corte de Madrid a examinarse; que en todo el expresado tiempo*



<sup>5</sup> Bergarako Udal Artxiboa (BrgUA.) C-204-18.

*se ejercitó en la ciencia y en estos artes, concurriendo a cuanto se le ofreció con puntualidad y aplicación, dando buena cuenta de todo lo que se le mandaba y enseñaba y por los conocimientos que de su resulta adquirió, a juicio del testigo tiene la aptitud y capacidad necesarias para ejercer ambas facultades por sí, obtenida la licencia y permiso del Tribunal del Real Protoalbeyterato de estos Reinos”.*

Beste bi maisu albeitarien lekukotza oso antzekoa da.

Ez dakigu zer urtetan eskuratu zuen Albeitari eta Ferratzaile gradua Madrilgo Eskolan, baina pentsatzen dugu 1802 eta 1803 artean izango zela.

1804ko apirilaren 21ean, Simon izeneko haur baten aita zela aitortu zuen. Maria Gregoria Olasaguirre Arzamendi zen ama, 23 urteko lizartzarra<sup>6</sup>.

Maria Florentina Zubimendi Eceizarekin ezkondu zen, Tourseko San Martinen elizan, Villabonako Amasa auzoan, 1813ko maiatzaren 4an<sup>7</sup>, eta bederatzi seme-alaba eduki zituzten, sei alaba eta hiru seme. Andoainen bizi izan ziren guztiak 1823. urte arte, eta Tolosara joan ziren gero.

1831ko maiatzaren 28an, Pablo Sorondo, Tolosako herritarra, Juan Antonio Berasategui eskribauaren aurrera agertzen da herri hartan bertan; Berasategui, berez, Hernaniko eskribaua zen, baina Tolosan ere aritzen zen. Simon Sorondo Olasaguirre<sup>8</sup> semearekin joan zen Pablo. Medikari aritzen zen semea, eta Seguran zeukan kontsulta une hartan. Diru-auzi bat argitzeko helburuz aurkeztu ziren bulego hartan: adierazi zuten, 1828ko irailaren 5ean, Itsasondoko eskribauaren aurrean, zera hitzartu zuten: Pablo Sorondok hamabi mila errealek cuarto edo behar zen kopurua utziko ziola Simoni, Madrilan egin behar zuen azterketa ordaintzeko, eta elikagaiak, arropa eta gainerako hornigai eta lanabesak ere bai, eta berdin mediku azterketak eta titulua eskuratzeko eskubideak eta joan-etorriko bidaiak. Diru hori, eta zegozkion interesak, itzuli egin beharko zizkion Simonek, lau urteren buruan (guztira, 15.148 errealek cuarto izan ziren). Eskribauaren aurrean, Pablo Sorondok onartu zuen jaso zuela semeak zor zion dirua, eta eskribauak, ordain- eta kitapen-agiriak egin zituen<sup>9</sup>.

Pablaren emaztea Tolosan hil zen, 1862ko abenduaren 16an; Pablo bera handik urte eta erdira zendu zen, 83 urtetan, Andoainen. Parrokiako heriotza-liburuak esaten du *saleroslea* zela.

<sup>6</sup> GEAH; Lizartzako Santa Catalina parrokia, 4. Jaiotza-liburua, 65. orrialdearen aurrealdea.

<sup>7</sup> GEAH; Tourseko San Martin, Amasa (Villabona), 3. Ezkontza-liburua, 101 orrialdearen aurrealdea, 5. idazpena.

<sup>8</sup> Lizartza (Gipuzkoa), 1804/04/21 – Hernani (Gipuzkoa), 1853/07/15.

<sup>9</sup> Gipuzkoako Artxibo Historikoa (GAH). 31514-A, 0118r-tik 0119r-ra.

## 2.2. Javier M<sup>a</sup>. Azcue Carrera (Andoain, 1801/12/14 – Donostia, 1861/11/18).

Juan Bautista Azcue Machimbarrena eta Maria Bautista Carrera Echeverriaren semea zen<sup>10</sup>.

Josefa Antonia Belaunzaran Casasekin ezkondu zen, 1836ko apirilaren 5ean, Donostian<sup>11</sup>, eta bi seme-alaba eduki zituzten, Faustino eta Isidora.

Donostian aritzen zen albeitari ferratzaile, horretarako baimena eman zion-eta Errege Auzitegi Protoalbeitariak.

Azcue jaunak, gainera, osasun-ikuskaritza egiten zien udal-hiltegira iristen ziren haragiei; ez zuen horretarako izendapenik, baina, itxuraz, ontzat ematen zuten denek haren jarduna, eta errespetuz hartzen zuten herritarrek eta hiltegioko agintzaileek.

Hiriko Albaitaritzako Ordezkariordearen ohorezko kargua zeukan, baina 1861eko abuztuan, osasun arrazoiak zirela medio, utzi egin zuen.

Donostiako Udalak 1861eko irailaren 26an<sup>12</sup> egin zuen udalbatzarrean, hark egindako lanaren esker onez, ohorezko beste izendapen bat eman zion, ofizialki, Javier Azcueri, eta handik aurrera albeitar izango zen “*para la inspección de ganados que se traigan para consumo*”, 1859ko Haragi Ikuskaritzaren Araudiari jarraiki.

Dena den, gobernadore zibilak helegitea aurkeztu zuen, haren esanetan, Azcue jauna ez zelako irakasle albeitarra, eta hirian bazelako beste bat (Jose Rodriguez Jabat), mailaz hura baino goragokoa.

Hiriko agintariak, segur aski, ezer gutxi jakingo zuten titulu-dantza horien inguruan; haien artean ez zen alde handirik izango albeitariaren eta albeitariaren artean, eta hortik zer ondorio etorriko zen ere ez zuten asko pentsatu izango. Azcue laguntzeko asmoz ari ziren, zalantzarik gabe, adinean aurrera joana eta osasunez ahul samar zegoen-eta. Udalak ahal bezainbat atzeratu nahi zuen hura ordezkatzeko, nahiz eta, bestalde, legezkoa iruditzen zitzaion ordezkapen hori, eta bazekien, gainera, hurbil-hurbil zegoela. Egoera horretan, Udalak zera adierazten zuen, lan horretarako izendatua zegoena gaixotuz gero, “beste albeitar bat” deitzen zutela, eta herrialdeko agintari gorenak ez zutela zertan kezkatu haragiaren ikuskaritza zela.

<sup>10</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia, 6. Jaiotza-liburua, 118. orrialdearen atzealdea, 57. idazpena.

<sup>11</sup> GEAH. Donostiako Koruko Andre Mariaren Parrokia, 1. Ezkontza-liburua, 120. or., 605. idazpena.

<sup>12</sup> Donostiako Udal Artxiboa (DUA); Udalbatzarren Akta-liburua. 1861eko 3. Hiruhilekoa. 214. or.

eta; horrez gain, azpimarratzen zuen izendapen hori formula bat baino ez zela, ez zuela bestelako izaerarik, eta Azcue kargutik kentzea itsuskeria edo zigortzat har zitekeela, eta, haien iritziz, ez zuela halakorik merezi.

1861eko azaroaren 18an hil zen Azcue, Donostian, 60 urte zituela.

### 2.3. Juan Bautista Yarza Ibarbia<sup>13</sup> [Andoain, 1807/05/21–Azpeitia, 1878/02/10].

Juan Lorenzo Yarza zuen aita, Villabonako semea, eta Juana Maria Ibarbia ama, Berastegiko alaba. Aitaren aldeko aitona, Juan Manuel Yarza izan zuen, Tolosakoa, eta amona, Amasako M<sup>a</sup> Ignacia (Villabonakoa, beraz); amaren aldetik, Joseph Ibarbia, Anoetakoa zuen aitona, eta Magdalena Saralegui, Berastegikoa amona.

1833ko azaroaren 12an ezkondu zen, Aizarnan (Zestoa), Mamerta Aramburu Olazabal<sup>14</sup> alargunarekin; bi seme-alaba eduki zituzten, zaharrena Tolosan jaioa, 1834an, eta bigarrena Andoainen, 1837an.

Azpeitian<sup>15</sup> izan zuen bizileku eta lanleku 1875. urte arte.

Errenteriako Udalak 1875eko irailaren 26an egin zuen udalbatzarrean, Lucas Gamon<sup>16</sup> alkate zela, Juan Bautista Yarza “*Albaitaritzira irakasleak*” egin zuen eskaria aztertu zuten, non eskatzen baitzuen Haragien ikuskatzaile izenda zezatela.

Errenteriako Udalbatzak onartu egin zuen eskaria; urtean 180 pezetako soldata agindu zion, eta jendeak jateko helburuz hiltzen ziren buru guztiak aztertzeke betekizuna jarri zion; horrez gain, 0,75 zentimoko ordain gehigarria izango zuen, aztertzen zuen txerri bakoitzeko. Honela mintzo da egun hartako akta: “*entendiéndose que estas retribuciones se señalan con objeto de proporcionarle su subsistencia, en atención a las circunstancias que reúne el aspirante, de haber sido aprobado por los carlistas y que deben pagarlas los interesados. Se hace constar que los emolumentos señalados no podrán servir de base o precedente para las provisiones ulteriores de esta plaza*”.

Ez dakigu zer baldintza ziren Yarza Ibarbia albeitarri ferratzaileari eragiten zioten horiek.

<sup>13</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M. (2007). *De herradores, albéitares y veterinarios municipales de Rentería*. RSBAPren Buletina, LXIII-1-2007 Liburukia, ekainekoa. Donostia-San Sebastian.

<sup>14</sup> GEAH. 1. Ezkontza-liburua, 187. orrialdearen atzealdea, 4. idazpena.

<sup>15</sup> Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 136. zbk, 1865/11/13.

<sup>16</sup> Errenteriako Udal Artxiboa. 169. Akta-liburua, 159. orrialdearen atzealdea.

Itxura guztien arabera, gure albeitariak –ez zen albaitaria, nahiz eta berak hala izendatu bere burua– uko egin zion lanpostuari, 1878ko otsailaren 28an, osasun-arrazoia zirela medio, urte hartan bertan hil baitzen, Azpeitian, pleuropneumoniak jota (medikuaren txostenak hori adierazten duela esaten du parrokiako heriotza-oharrak)<sup>17</sup>.

### 2.4. Jose Antonio Cipitria Mendia [Andoain, 1813/08/23–Sorabilla, 1880/12/26].

Manuel Antonio Cipitria Carreraren eta Maria Josefa Mendia Querejetaren semea.

Gipuzkoan egin zuen albeitarri ferratzaile izateko azterketa, eta 1850eko otsailaren 4an lortu zuen titulua<sup>18</sup>.

Maria Francisca Arizabalo Lerchundirekin ezkondu zen, Aiako eliz parrokian, 1842ko maiatzaren 6an<sup>19</sup>.

Uste dugu eskualdean jardun izango zuela lanean, baina, oraingoan, ez dugu aurkitu hori erakusten duen dokumenturik.

1880ko abenduaren 26an<sup>20</sup> hil zen, Sorabillan, 67 urtetan.

### 2.5. Josef Maria Donato Sorondo Lecuona (1825/12/13 – Donostia, 1884/01/29).

Josef Joaquin Sorondo Zuloaga eta Manuela Maria Lecuona Olloquiegui<sup>21</sup> izan zituen guraso.

Nicasia Salaverriekin ezkondu zen, Iruran, 1851ko apirilaren 28an<sup>22</sup>. Tolosan bizi izan ziren, eta bost seme-alaba izan zituzten, hiru gizonetzko eta bi emakumezko.

Gipuzkoan egin zuen albeitarri ferratzaile izateko azterketa, eta 1850eko urtarrilaren 31n lortu zuen titulua<sup>23</sup>.

<sup>17</sup> GEAH. Azpeitiko Parrokia. 6. Heriotza-liburua, 189. or., 9. idazpena.

<sup>18</sup> Administrazioaren Artxibo Nagusia (AAN). Hezkuntza. 120-8-16/64 Liburua

<sup>19</sup> GEAH. Aiako Parrokia. 5. Ezkontza-liburua, 197. orrialdearen atzealdea, 6. idazpena.

<sup>20</sup> GEAH. Sorabillako Eliza. 3. Heriotza-liburua 97. orrialdearen atzealdea, 4. idazpena.

<sup>21</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia. 8. Bataio-liburua, 8. orrialdearen atzealdea, 29. idazpena.


<sup>22</sup> GEAH. Irurako Parrokia, 2. Ezkontza-liburua, 93. orrialdearen atzealdea, 63. idazpena.

<sup>23</sup> AAN. Hezkuntza. 120-8-16/64 Liburua.

1865eko Hautesle Erroldan<sup>24</sup> ageri da. 1875ean, Tolosako “albaitari” zen, eta Albaitaritzaren ordezkariorde aritzen zen barrutian, Ordizia barne<sup>25</sup>.

Donostiako San Antonio Abad ospitalean hil zen, 1884ko urtarrilaren 20an<sup>26</sup>.

**2.6. Francisco Miguel Ariztimuño Belanzategui.** (Gereñu (Araba), 1815/05/08 – Andoain 1861/07/04<sup>27</sup>).



Francisco Santos Ariztimuñoren eta Maria Micaela Belanzateguiren semea; Gereñun bizi ziren biak, Araban, baina Oñatikoak ziren berez. Hauek izan zituen aitaren aldeko aitona-amonak: Joseph Ariztimuño, Zegamakoa, eta Joaquina Aranegui, Maeztukoa (Araba); Oñatin bizi ziren horiek ere. Amaren aldetik, Francisco Belanzategui izan zuen aitona, Oñatiko semea, eta Maria Antonia Oyarbide amona, Gabiriako alaba; horiek ere Oñatin bizi ziren<sup>28</sup>.

Oñatin<sup>29</sup> ezkondu zen, 1840ko apirilaren 27an, Josefa Legorburu Ayastuyrekin; Oñatikoa zen hura ere, 38 urtekoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten, bat Oñatin jaioa, bestea Bergaran, eta gainerakoak Andoainen.

Senar-emazteek Berastegin hartu zuten bizilekua, 1841ean, eta Andoainera jo zuten 1847an; hantxe aritzen zen Francisco Miguel albaitari ferratzaile eta ostalari.

1853ko maiatzaren 13an, abelburuen urteko erakusketa eta lehiaketa egin zuten Azpeitian<sup>30</sup>, Loiolako San Ignazioaren zelaian, Gipuzkoako Aldundiak antolatuta (laugarren ekitaldia zuen lehiaketak), eta epaimahaiaren batzorde profesionaleko kide izan zen.

1860an, Andoainen<sup>31</sup> bizi zen familia, eta hantxe ezkondu zitzairen seme nagusia; handik urtebetera hil zen gure protagonista (berezko heriotza izan zuen).

<sup>24</sup> GAO.135.zbk1865/11/10ekoak.

<sup>25</sup> Gipuzkoako Artxibo Nagusia (GAN). JDIT 4c.

<sup>26</sup> GEAH. Donostia, 5. Heriotza-liburua, 84. or., 1499. idazpena.

<sup>27</sup> GEAH. Andoingo Parrokia, 3. Heriotza-liburua, 8. orrialdearen atzealdea, 15. idazpena.

<sup>28</sup> Arabako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa (AEAH-GEAH). Gereñuko Parrokia (Araba).

<sup>29</sup> GEAH. Oñatiko Parrokia, 8. Ezkontza-liburua, 190. orrialdearen atzealdea, 32. idazpena.

<sup>30</sup> Albaitaritzaren Buletina, 232. zbk, 1853/06/10, 256. or.

<sup>31</sup> Andoingo Udala Artxiboa (AUA), B.9.II.243H/21. Biztanleen Udala Errolda, 1860/12/26koa, 200. idazpena.

### 3. ALBAITARIAK.

**3.1. Francisco Javier Aramburu Iriarte** (Andoain, 1798/10/15– Aretxabaleta, 1873/02/14).

Andoainen jaio zen, 1798ko urriaren 15ean<sup>32</sup>; Javier eta Fernanda izan zituen guraso, biak ere Urrietakoak.

Saturnina Gonzalezekin ezkondu zen, Aretxabaletako alaba bera, 1841eko azaroaren 3an; Juan Benito zuen hark aita, Arrasatekoa, eta M<sup>a</sup> Andresa Isasi-Isasmendi ama, Galartza elizatekoa (gaur egun Aretxabaleta da hori; garai hartan, Anteglesia de Galarza izena zuen). Guk dakigula, bi seme-alaba, behintzat, eduki zituzten, Juan Felipe Ignacio, 1846ko abuztuaren 4an jaioa, eta Casiana, 1851ko abuztuaren 12koa<sup>33</sup>.

Alargunduta hil zen, 1873ko otsailaren 14an<sup>34</sup>, 75 urtetan, Aretxabaletan, zahartasunez eta testamenturik egin gabe.

Madrilgo Albaitaritzaren Eskolan albaitari-titulua lortu zuen lehen gipuzkoarra izan zen, 1831ko otsailaren 24an, hain zuzen; Aretxabaleta hartu zuen bizileku, eta Albaitaritzaren Osasunerako ordezkariorde izan zen Bergarako Auzitegi Barrutian, 1849tik aurrera.

1856ko urtarrilean, idazkari postua eskuratu zuen Aretxabaletako Udalean, eta lan horretan ez ezik, albaitari ere jardun zuen aldi berean, bai Aretxabaletan eta bai Leintz eskualdeko gainerako udalerrietan. 1859tik aurrera, Haragien udal ikuskatzaile ere aritu zen.

1850eko abenduaren 12an, Javier Barcaizteguik, Gipuzkoako ahaldun nagusiak, gutuna bidali zion Javier Arambururi, eta han esaten zion Herrialdeko Albaitari izendatuko zuela 1851ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta urtean 200 dukateko soldata izango zuela. Honelaxe zioen: “[...] con la obligación de asistir a las exposiciones de ganado que celebre esta provincia, de reconocer los ganados que concurran a dichas exposiciones, de designar los que sean merecedores a los



Francisco Javier Arambururen erretratu (gutxi gorabeherakoa). Luis Alberto Calvo Saezek egina, Valladolideko margolari eta albaitariak

<sup>32</sup> GEAH; Libro 6º de Bautizados, asiento 47.

<sup>33</sup> GEAH. 7. Bataio-liburua, 53. or. eta 112. orrialdearen atzealdea.

<sup>34</sup> Aretxabaletako EZ. 2. Liburua, 23. or. eta GEAH, 6. Heriotza-liburua, 21. orrialdearen atzealdea.

*premios establecidos, de cuidar de la conservación y oportuno empleo de los toros padres que tenga la Provincia y de desempeñar cualquier otra comisión que la Provincia le designe y cuyo oficio sea la mejora, el fomento y la salubridad del ganado de toda clase, de la misma*<sup>35</sup>.

Gauza asko idatzi zituen Zooteknia gaien inguruan, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz, eta berriki argitaratu<sup>36</sup> dugu haren bizitza eta obra aztertzen dituen lan monografikoa (Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Buletinean ikus liteke).

### 3.2. Jose Joaquin Olaverria Zubeldia (Andoain 1860/01/16–1892/09/04).

Jose Olaverria Guisasola zuen aita, Bergarakoa jaiotzez, eta ferratzailea lanbidez (arragoa ere bazuen, eta Andoainen aritzen zen); ama, Francisca Zubeldia Bengoechea zuen, Andoaingo alaba<sup>37</sup>. Aitaren aldeko aitona-amonak, Ignacio Olaverria eta Agustina Guisasola zituen, Bergarakoak biak. Amaren aldetik, Ignacio Zubeldia zuen aitona, Tolosakoa, eta Maria Bautista Bengoechea amona, Berastegikoa.



Asindegi baserria, Andoain. Argazkia: C.A.

Madrilgo Albaitari Eskolan sartzeko azterketa egin zuen 1851ko irailaren 30ean, eta baita gairitu ere; 1888ko ekainaren 25ean bukatu zituen Albaitari ikasketak.

Albaitari moduan ageri da 1890eko<sup>38</sup> eta 1892ko<sup>39</sup> hautesle erroldetan, eta Andoainen bizi dela esaten dute.

Dolores Ceberio Galarragarekin ezkondu zen; Amasan jaioa zen hura, Villabonan, 1863. urtean. Alaba bat eduki

zuten senar-emazteek, Felisa Olaverria Ceberio, 1892ko urtarrilaren 6an jaioa.

1887ko uztailaren 1ean hasi zen Andoainen lanean, udal albaitari eta haragien ikuskatzaile moduan, aldi baterako; Pedro M<sup>a</sup> Garagorri alkate zela, 1889ko maiatzaren 22an, lanpostua betetzeko deialdia<sup>40</sup> egitea erabaki zuen Udaltzarak ofizialki, eta gure protagonistari eman zioten.

<sup>35</sup> GAN.JDIT 620 b,1

<sup>36</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M. 2008. *Francisco Javier de Aramburu e Iriarte. Primer veterinario guipuzcoano*. RSBAPren Buletina, LXIV, 2008-I Liburukia, 255-286 orr. Donostia-San Sebastian.

<sup>37</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia. Bataio-liburua, 481. orrialdearen atzealdea, 3. idazpena.

<sup>38</sup> GAO, 50. zbk, 1890/10/24koa.

<sup>39</sup> GAO, 1892/06/13koa, 23 orrialdearen atzealdea.

<sup>40</sup> GAO, 63. zbk, 1889/05/27.

Idatziz jaso dago<sup>41</sup> noiz parte hartu zuen azkenekoz Andoaingo Tokiko Osasun Batzarrak egindako bilkuran; 1892ko ekainaren 4an izan zen, eta orduko hartan, Jose Antonio Mugica alkateak jakinarazi zuenez, aurreko gauen behi gaixo bat hil zuten hiltegiaren, isilgordearen eta albaitaria jakinaren gainean jarri gabe, eta hitzartu zuten, Udaltzara hiltegiaren aurkeztuko zela, abelburua erre egingo zutela eta zigortu egingo zituztela ebakitzaileak.

Andoainen hil zen, tuberkulosiak jota, 32 urtetan, 1892ko irailaren 4an<sup>42</sup>, eta Jose Antonio Mugica alkateak, handik gutxira, lanpostu-deialdia<sup>43</sup> egiteko onespena eman zuen.

### 3.3. Rafael Erro Castillo (Ziordia (Nafarroa), 1860 - ?).

Ziordian jaio zen, Nafarroan. Jose Erro zuen aita, hura ere Ziordikoa, eta Juana Castillo ama, Etxabarrikoa (Araba)<sup>44</sup>.

Hamazazpi urte zituela, Madrilgo Albaitaritza Eskolan sartu zen, eta 1884an lortu zuen titulua (emaitza akademikoak ez zituen izan nabarmentzeko modukoak)<sup>45</sup>.

Juana Castillo Madrazorekin ezkondu zen, Gazeoko alaba bera (Araba), eta bost seme-alaba izan zituzten; lehen biak Gazeon sortu ziren, hirugarrena Etxarri Aranatzen (Nafarroa), laugarrena Lakuntzan (Nafarroa) eta bosgarrena, Candido izenekoa, Andoainen, han bizi ziren-eta, Kale Berriko 1. zenbakian<sup>46</sup>. Francisco Oquiñena Castilloren koinatua zen, *On Pacorena*, alegia.

Etxarri Aranatzen eta Lakuntzan aritu zen lanean.

1893an, Haragien ikuskatzaile izendatu zuten Andoainen, eta urte horretako ekainaren 21ean hasi zen Tokiko Osasun Batzarraren bilkuretan parte hartzen. Badirudi jendeak ez zuela oso begiko, eta jarri zioten goitzenak ere horixe adierazten du: *albaiteroa* esaten zioten, eta garai bateko albeitarrekin parekatzen zuten.

<sup>41</sup> AUA, A.18.I-LH/212

<sup>42</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia. 4. Heriotza-liburua, 148. orrialdearen atzealdea, 37. idazpena.

<sup>43</sup> GAO, 39. zbk, 1892/09/28koa.

<sup>44</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia; 13. Liburua, 37. orrialdearen atzealdea; 33. zbk

<sup>45</sup> MAFAH. 29. Matrikula-liburua, 73. orr.

<sup>46</sup> AUA, LH/52<sup>a</sup>. Biztanleen Udaltzaren Errolda, 1894koa.



1895eko irailaren 19an parte hartu zuen azkenekoz Andoaingo Tokiko Osasun Batzarraren bilkuran<sup>47</sup> (kide kargua zuen), eta 1895eko abenduan egin zion uko postuari, Candido Mendizabal<sup>48</sup> alkate zela. Andoain utzi, eta Debara joan zen. Berehala egin zuten postua betetzeko deialdia<sup>49</sup>.

1895eko urtarrilaren 5ean<sup>50</sup>, Mutrikuko Udalbatzak jakin zuen, Rafael Errok, Debako albaitariak, eskaria aurkeztu zuela Haragiien ikuskatzaile izenda zezaten Mutrikun; Juan Ramon Beriztain zen orduan udalburu, eta eskariari erantzuna ematea erabaki zuten, eta Mutrikuko Udalak zer baldintza jartzen zituen jakinaraztea.

Urtarrilaren 19an, Mutrikuko Udalak berriz aztertu zuen Erroren eskaria, eta gogora ekarri zuten zer baldintza ekonomiko zegozkion postu hari: 250 pezeta urtean, eta berrogeita hamar zentimo behi-azienda edo txerri-azienda bakoitzeko, eta bost zentimo ardi-aziendengatik. Aurrekontuetan ez zutenez diru atalik aurreikusitako horretarako, ezin izan zuten izendatu<sup>51</sup>.

Beriztain alkateak, ordea, erdibideko formula bat aurkitu zuen izendapena gauzatu ahal izateko, eta 1896ko martxoaren 29ko udalbatzarrean, Haragiien ikuskatzaile izendatu zuen Erro Mutrikuko Udalak. 1897ko apirilaren 5a arte iraun zuen postu horretan, eta hortxe galtzen da haren arrastoa. Ez dakigu zer egin zuen handik aurrera; Nafarroa aldera itzuliko zen, agian.

#### 3.4. Francisco Oquiñena Castillo (Olazti (Nafarroa), 1865/01/12 – Andoain, 1951/11/24).

Francisco-Benito, On *Paco*, Olaztin sortu zen, Nafarroan, 1865eko urtarrilaren 12an, goizaldeko ordu bietan, eta herri hartako San Miguel parrokian bataiatu zuten<sup>52</sup>.

Albaitaria izan zuen aita ere, Jose Oquiñena, Lekunberrikoa (Nafarroa); ama, berriz, gasteiztarra zuen, Cecilia Castillo. Aitaren aldeko aitona, Juan Miguel Oquiñena zen, Etxarrikoa (Larraun eskualdeko Etxarrikoa), eta amora, Monica Marcela, Lekunberrikoa; azken udalerrri horretan bizi ziren. Amaren aldetik, Fausto Castillo zuen aitona, Viñaspreko semea (Araba), eta Juana Saez amona,

<sup>47</sup> AUA, A.18.I-LH/212

<sup>48</sup> AUA, Akta-liburua, 71. zbk.

<sup>49</sup> GAO, 72. zbk, 1895/12/13.

<sup>50</sup> Mutrikuko Udal Artxiboa (MuUA). Akta-liburua, 25. zbk (1892ko uztaila eta 1896ko ekaina bitartekoa), 193. or.

<sup>51</sup> MuUA. Ídem, 201 orrialdearen atzealdea.

<sup>52</sup> Nafarroako Elizbarrutiko Artxiboa (NEA). Olatzagutiako Parrokia, 8. Bataio-liburua, ((1866-1888), 1865. urtea, 8. orrialdearen atzealdea, 1. idazpena.

Araiakoa (Araba); ordurako alargundua zegoen amona, eta Gazeon bizi zen, Araban. Francisco Oquiñena gure protagonistak, guk dakigula, beste bost senide izen zituen, gutxienez: Javier (1871)<sup>53</sup>, Fausto (1874)<sup>54</sup>, Pedro (1875)<sup>55</sup>, Joaquin Miguel (1876) eta Fidela (1882).

Bernardina Erro Castilloarekin ezkondu zen; Ziordikoa zuen emaztea, nafarra, eta hangoa zen haren aita ere, Jose Erro; ama, berriz, arabarra zuen, Etxabarrikoa, hain zuzen<sup>56</sup>. Sei seme-alaba eduki zituzten, Jose, Zacarias, Joaquina, Dimas-Gregorio, Fermina eta Jesus. Jose eta Zacarias Filipinetara joan ziren, eta hantxe geratu; Jesusek eta Dimas-Gregoriok, familia-ko ohiturari jarraitu zioten, eta albaitari egin ziren.

1883ko urrian sartu zen Zaragozako Albaitari Eskolan, eta 1888ko ekainaren 20 eta 21ean egin zituen albaitari bihurtzeko azken azterketak. Ariketa guztietan *Nahiko* atera zuen<sup>57</sup>.

Iberon aritu zen lanean (Nafarroa) 1892ko iraila arte, eta Urretxu eta Zumarragara joan zen urte hartan; han ari zela, Donostiako Udalean albaitari ikuskatzaile izateko lehiaketan parte hartu zuen, baina ez zuen posturik lortu; Goierri aldean jarraitu zuen, beraz, 1895. urte amaiera arte, eta handik, Andoaina aldatu zen gero.

Andoaingo Udalean, izan ere, hutsik geratua zen albaitari postua, lehendik zegoenak uko egin baitziren<sup>58</sup>, eta Udalbatzak, Candido Mendizabal Zatarain buru zuela, deialdia egitea erabaki zuen 1895. urteko abenduaren 10eko udalbatzarrean<sup>59</sup>. Postu hori eskuratzeko lehiaketan parte hartu zuen Franciscok, *urtean 250 pezetarekin hornitutako postua, udal funtsetatik ordaindua, hiru hiletik behin, epe horren amaieran*.



1933ko graduatze-argazkitik ateratakoa irudia.

<sup>53</sup> NEA. Olaztiko Parrokia, Sakramentuen Liburua; 1871/03/18; ohiko liburua, 68. or., 15. zbk.

<sup>54</sup> Ídem, 1874/07/17, 25. or., 19. zbk.

<sup>55</sup> Ídem, 1875/06/29, 100. or., 10. zbk.

<sup>56</sup> GEAH. Tourseko San Martinen Parrokia, Andoain, 13. Liburua, 37. orrialdearen atzealdea, 33. zbk.

<sup>57</sup> Zaragozako Albaitaritzako Fakultateko Artxibo Historikoa. (ZAFH). Matrikula-liburua 1880-1888; 229 or.

<sup>58</sup> *La Veterinaria Española*, 1895/12/20.

<sup>59</sup> GAO, 72. zbk, 1895/12/13.

1895eko abenduaren 29an<sup>60</sup>, Mendizabal alkateak berak zuzenean esku hartu ondotik, Andoaingo Udaleko albaitari ikuskatzaile izendatu zuten (agiriekin diotenez, “*belarririk tiraka*” ekarri zuen alkateak gure protagonista). Andoaingo albaitari ez ezik, auzo-herri batekoa ere izendatu zuten, Adunakoa, hain zuzen.

1896ko urrian, Candido Mendizabal alkateari eskatu zion, dei zitzala auzo-alkateak, gaixotasun bat agertu baitzen herriko behi-aziendetan, “*barearen gaixotasun kutsakorra*”<sup>61</sup>(mihi gaizto bakteridianoa).

1896ko urriaren 30ean Andoaingo Tokiko Osasun Batzarrak egin zuen bilkuran, berezko kide gisa ageri da, eta halaxe jarraituko du 1926ko irailaren 4a arte<sup>62</sup>.

1897an, Andoaingo Kale Nagusiko 30. zenbakian bizi dela erakusten dute agiriekin<sup>63</sup>, eta harekin batera, emaztea, lau seme-alaba –guztiak Nafarroan jaiotak, Zacarias eta Joaquina Lizarragan, Gregorio eta Jose Olaztin–, eta beste bi lagun Francisco Urdanpilleta Otegi ferratzailea eta neskamea. 1901ean, Fermina jaiotzen, eta 1904an, Jesus<sup>64</sup>.

Andoaingo Udalak 1899ko otsailaren 1ean egin zuen batzarrean, Ignacio Zalacain<sup>65</sup> alkatea buru zela, zenbait herritarrek albaitariari jarri zioten salaketa aztertu zuten; haien esanetan, udal albaitari-etxearen ondoko eraikinean, arragoa bat, ferratoki bat eta oilategi bat zeukan udal albaitariak, eta hori “*kaltegarria zen herriko higienarentzat*”.

Otsailaren 8an<sup>66</sup>, Mateo Aramburu Legarra zinegotziak jakinarazi zuen, Okiñe-nak postua hartu zuenean, merkatuko eraikinak zituen geletako bat eman ziotela, baina ferratoki bat edukitzeko nahi adierazi zuelarik, orduko alkateak, Candido Mendizabalek, zinegotziei zera proposatu ziela, salaketan ageri den eraikin hori bera utz ziezaioketela, eta halaxe adostu zuten igande batez, elizkizun batera zihoazela, eta horrexegatik ez zen ageri hitzarmenaren berri akta-liburuetan. Sebastian Garagorri Berridi zinegotziak erantzun zuen, akordio ofizialik ez zegoeenez, albaitariak utzi egin beharko zuela eraikin ofiziala, eta halaxe eskatu beharko zitzaioela; beste zinegotzi batzuk harritu egin ziren, nondik ote zetorren halako presa egoitza hori husteko, jakinik, gainera, azken hiru urteetan inolako arazorik

<sup>60</sup> AUA, Akta-liburua, 71. zbk 71.

<sup>61</sup> AUA, A.18.V.226H-16.

<sup>62</sup> AUA, A.18.I.LH/50.

<sup>63</sup> AUA, B.9.II-LH/210, 3. or.

<sup>64</sup> AUA, B.9.II-67.H/5, 10. or.

<sup>65</sup> AUA, Akta-liburua, 72. zbk, 162 or.

<sup>66</sup> AUA, Akta-liburua, 72. zbk, 164 or.

gabe erabili zuela albaitariak, eta haien iritziz, bestelako haserriek sortu izan ez balitz albaitariaren eta zenbait herritarren artean, ez zatekeen agertu izango halako arazorik, eta, beraz, mendeku-ekintzat jotzen zuten salaketa. Azkenik, txosten bat egin zezala eskatu zioten Udaleko Osasun Batzarrari.

1899ko otsailaren 22an, Udaleko Osasun Batzarrak aurkeztu zuen txostena<sup>67</sup> aztertu zuen Udalbatzak. Hauxe zioen txostenak:

*“Primero.- Que los locales donde se encuentra lña fragua denunciada y el matadero de reses vacunas, se hallan separados por medio de un cerramiento de pared llamado de media asta, siendo por lo tanto suficientemente gruesa para impedir que el calor del fuego que se hace en la fragua pueda pasar al departamento del matadero de reses; que para cerciorarse mejor han formulado algunas preguntas respecto al particular al administrador encargado del cuidado del edificio y ha manifestado que jamás ha notado en el expresado matadero, ni humo ni calor procedentes de la indicada fragua.*

*Segundo.- Que el local donde se encuentra la fragua denunciada se construyó para matadero de ganado cerdal y que al efecto existe una chimenea, la cual se utiliza con la fragua y que si dicho local se destinara al objeto para el que fue construido, se haría mayor fuego y de más intensidad que el que hoy se hace por lo que y por las condiciones en que se encuentran los dos citados locales, considera que el fuego de la fragua no puede perjudicar absolutamente nada a las carnes del matadero.*

*Tercero.- Que en el departamento destinado a cuadra del ganado que se trae para sacrificar, se han visto tres gallinas y como no pasan al local donde se matan las reses, tampoco pueden causar perjuicio alguno; que la fragua de que se trata, no perjudica absolutamente nada a la conservación de las carnes, que no existe abuso alguno respecto al particular de parte del Veterinario Titular y que por lo tanto la denuncia formulada por algunos vecinos es infundada.*

*Es cuanto en descargo de la comisión tiene que informar-*

*En Andoain a quince de febrero de 1999.*

*Ignacio Zalacain. Patricio Ganzaraín. Jerónimo Sobernil. José Joaquín Esnal. José María Altube”.*

Irizpena irakurri ondoren, presidenteak ontzat eman zuen, baina jakinarazi zuen, ikuspegi administratibotik, egiaz, helburu pribatuetarako erabiltzen ari zela udal jabetza bat, nahiz eta inori kalterik egin ez, eta, ondorioz, adostu zuten albaitari tituludunari adieraziko ziotela, jabetza publikokoa zena utzi, eta beste tokiren bat bila zezala lantegia jartzeko.

Gure protagonista ez zen askorik larritu, nonbait, Udalak hartu zuen erabakia-rekin; izan ere, 1899ko ekainaren 28ko udalbatzarrean<sup>68</sup> (legealdi hartako azkena

<sup>67</sup> AUA, Akta-liburua, 72. zbk, 170 or.

<sup>68</sup> AUA, Akta-liburua, 73. zbk, 34. or.

izan zen), Garagorri zinegotziak –ez zen berriz zinegotzi izan– oroitarazi zuen *okupa* gisa jarraitzen zuela Oquiñenak, artean ez baitzuen utzi udal-egoitza; Udaltzako erabaki zuen hilabete epea emango ziola egoitza husteko.

Sebastian Garagorri, ordea, herritar gisa zegozkion eskubideak gauzatzen jarraitu zuen, eta helegitea jarri zion Udalak hartutako erabaki bati (udal-hiltegiaren hiltzen zituzten abelburuen azterketaren ingurukoa zen), ez zuen onartu Udaltzako eman zion azalpena eta gorako instantzietan aurkeztu zuen kexua; horien guztien ondorioz, irizpena egin zuen Herrialdeko Batzordeak, eta 1899ko azaroaren 9ko udalbatzarrean, Hipolito Erausquin<sup>69</sup> alkate zela, Udaltzako adierazi zuen iritsi zitzaiola irizpena eta jakinaren gainean zegoela:

*“La Comisión provincial se ha enterado del recurso promovido por don Sebastián Garagorri Berrido vecino de Andoain contra un acuerdo del Ayuntamiento de aquella villa sobre reconocimiento de las reses que se sacrifican en el matadero.*

*El Inspector de Carnes de Andoain se dirigió al Ayuntamiento exponiendo que hasta la fecha no ha cobrado derecho ninguno por reconocimiento de las reses que se sacrifican en los caseríos para repartir la carne entre los cofrades y otros vecinos., pero que habiendo cambiado las circunstancias, se propone exigirlos en lo sucesivo por no considerarse obligado a cumplir este servicio gratuitamente, a cuyo efecto solicitaba la aquiescencia de la Corporación municipal.*

*Dividióse las opiniones respecto del alcance de las obligaciones del Veterinario municipal, entendiéndose la mayoría de los concejales que sólo estaba obligado a reconocer gratuitamente las reses que se sacrificaran en el matadero y que respecto a los reconocimientos de las reses sacrificadas en los caseríos, era un servicio de carácter particular, cuya retribución debían pactar entre el interesado y el Veterinario, declarándose incompetente el Ayuntamiento para fijar las condiciones en que debía prestarse el servicio.*

*Así se acordó en sesión del 16 de agosto último, contra cuyo acuerdo se interpone el presente recurso en solicitud de que se revoque y se declara que el Inspector de carnes no está facultado para exigir derechos a los particulares por el reconocimiento de las reses sacrificadas fuera del matadero, para ser repartidas entre los miembros de las hermandades de ganado y otras personas.*

*La razón de interponerse el recurso ante esta Comisión es considerar la exención de derechos mencionada como un arbitrio que la Diputación debe autorizar a tenor del artº. 2 del Reglamento de arbitrios municipales, contra cuya apreciación pronuncia el Alcalde, argumentando que de exigirse estos derechos, tendrían el carácter de remuneración de un servicio particular, deduciendo en consecuencia que el recurso ha sido mal interpuesto, porque procedía dirigirlo al Gobernador civil.*

<sup>69</sup> AUA, Akta-liburua, 73. zbk, 77. orrialdearen atzealdetik 78. orrialdearen atzealdera.

*En cuanto al fondo del acuerdo, considerado ya como de consumo público el de las reses impedidas para el servicio por lesión o enfermedad, cuando su carne se reparte entre los socios o familiares de las hermandades, esta Comisión se basó en un informe emitido por el Sr. Gobernador con fecha de 20 de febrero último respecto a otro recurso análogo y declaradas en consecuencia, de aplicación a estos casos las disposiciones que regulan la inspección de carnes destinadas al consumo público, con más motivo todavía que en los casos ordinarios, procede que como medida general y salvo los casos de excepción fundados en absoluta imposibilidad o en grave perjuicio para los interesados, se establezca que el sacrificio de las reses se verifique precisamente en el matadero, con mlo cual se evita la cuestión que motiva el recurso, toda vez que el Veterinario municipal debe practicar gratuitamente el reconocimiento en dicha dependencia.*

*Ahora, en los casos de excepción que a solicitud de los interesados se sacrifiquen las reses fuera del matadero y por ser absolutamente imposible la conducción de la res en vida a la mencionada dependencia, ya porque sea muy difícil ya por que origine graves perjuicios la conducción en atención a la lesión o enfermedad de la res, el reconocimiento habrá de practicarse por el Veterinario municipal fuera del matadero y toda vez que el mayor trabajo de este funcionario redunde en beneficio de los interesados, justo es que éstos le satisfagan la correspondiente remuneración, a cuyo efecto y tratándose del cumplimiento de un servicio público y obligatorio, debe el Ayuntamiento señalar una tarifa de derechos por esta clase de reconocimiento con sujeción a las disposiciones vigentes.*

*Por lo expuesto y teniendo en cuenta que la cuestión está relacionada con la salubridad pública y por tanto con las atribuciones del Señor Gobernador, la Comisión provincial acordó significar a dicha autoridad por vía de informe y con remisión del expediente, que procede:*

*1º.- Que como medida general deben sacrificarse todas las reses en la majadería, sin que por el reconocimiento que en ella se practique, el Veterinario Inspector pueda devengar derecho alguno.*

*2º.- Que cuando fuere absolutamente imposible la conducción de la res en vivo a la majadería o se hiciera muy difícil por las lesiones o enfermedad de la res, podrá ser sacrificada fuera del matadero, pudiendo en este caso el Veterinario Inspector, cobrar derechos por el reconocimiento, con sujeción a la tarifa que al efecto se forme.*

*San Sebastián, 6 de noviembre de 1899*

*El Conde de San Román”.*

1900. urteko irailaren 19an<sup>70</sup> egin zen udalbatzarrean, Hipolito Erausquin Garagorri alkate zela, erabaki zuten bost pezetako ordaina jasoko zuela Haragien ikuskatzai-leak, salbuespen moduan abelburuak hiltzetik kanpo hiltzea beste aukerarik ez zegoenean, baldin eta herrigunean jardun behar bazuen; herrigunetik kanpo joan beharra sortuz gero, hamar pezeta jaso beharko zituen, eta abelburuari azterketa

<sup>70</sup> AUA, Akta-liburua, 73. zbk, 173. or.

bat egin behar zion hil aurretik edo *ante mortem* eta beste bat hil ondotik. Gainera, udalbatzar berean adostu zuten zer betebeharrak zegozkion udal albaitariari. Hauek, hain zuzen:

“ 1º.- Reconocimiento de toda clase de ganados en el matadero público municipal.

2º.- Reconocimiento de frutas, verduras, leche, pescados y otras sustancias alimenticias en la plaza del Mercado y en los puntos que el mismo Sr. Inspector considere convenientes.

3º.- Visita del ganado que posee la Casa de Misericordia o el que llegaran a tener otros establecimientos benéficos del municipio y todas las demás obligaciones que respecto a la inspección higiénica se hallan encomendadas a los inspectores de carnes”.

1901eko abenduaren 25eko udalbatzarrean, Hipolito Erausquin alkatea buru zela, gure protagonistari urteko soldata igoko ziotela erabaki zuten, hark hala eskatuta<sup>71</sup>.

Bere lantegia lekuz aldatu, eta errepide nagusiko bihurtu dagoen leku horretantxe jarri zuen, Leitzaran ibaiaren gainetik doan zubia pasatu eta berehala, Donostiarako noranzkoan goazela, eta ferratzailea ere bazuen han, Francisco Urdampilleta Otaegui, *Patxi Herrero*.

Patxi Urdampilleta zen ferratzailea, baina berak ere laguntzen zion azindak ferratzen, batik bat, zaldiak, mandoak eta astoak. Langile onaren fama zeukaten biek, eta negozioa utzi zutenean, Jacinto Otaegui Arangurenen eskuetan geratu zen.

Patxi eta On Paco asko ibiltzen ziren Eskerranea tabernan; oso irekiak ziren biak ere, hiztun onak, etorri eta kolpe onekoak, eta noiznahi eginarazten zieten irri ingurukoei<sup>72</sup>.

1904. urteko uztailaren 17ko udalbatzarrean, Candido Mendizabal Zatarain alkatea buru zela, eta gure protagonistaren eskariz, araudi berri bat onartu zuten, Andoaingo herrian behi-azindak hil eta saltzeko Araudia, hain zuzen<sup>73</sup>.

1915eko irailean, Epizootien Araudia betez, alkateari jakinarazi zion pneumonia exudatibo kutsakorra antzeman zutela Sorabilla auzoko Errota baserrian.

Haren izaera alaiaren erakusgarri, pasarte bat kontatzen zuen Candido Mendizabal Cipitria jaunak, Andoaingo albaitari ospetsua izan zenak. Albaitari ikasketak hasi zituztenean, zera esaten omen zion On Pacok, “ % 25 ikasi zientzia eta % 75 maltzurkeria”.

<sup>71</sup> AUA, Akta-liburua, 74. zbk, 118 or.


<sup>72</sup> AGUIRRE SORONDO, A. *De albaitares y herreros*, III. Liburukia, 708. or.

<sup>73</sup> AUA, Akta-liburua, 77. zbk, 200-206 orr.

Andoainen, On Paco deitzen zioten, eta haren seme Jesus ere aitaren bidetik hasi zenean, *Albaitari zaharra* esaten zioten herritarrek, maitekiro.

Candido Mendizabal Zatarain<sup>74</sup> lagun mina izan zen; abeltzain garrantzitsua izan zen, eta Andoaingo alkate izatera ere iritsi zen. Gain-gainetik bada ere, esango dugu hari buruzko zerbaitekin, ilobari buruzko berriak ematerakoan.

Candido Mendizabal Zatarain Frantzia aldean zebilen behin, lanak haraino eramanda, eta behi gaixo bat ikusi zuen ukuilu batean, erditze ondoko paresiak edo



*On Paco Okiñena, Andoaingo lantokian, idi bati kailuak jartzen.*

esne-etorrerako sukarrak jota. Garai hartan, XX. mende hasieran, hemen ez zegoen sendabiderik gaitz horrentzat, eta hil egin behar izaten zen abelburua. Han, ordea, albaitaria deitu zuten nagusiak, eta etorri zenean, errapeari haize eman eta berehala zutitu zen animalia, baita jaten hasi ere.

Candido harrিতa geratu zen, eta sendabide hark zer emaitza eman zuen ikusita, Hauptner etxeko bi ponpa erosi zituen, larru beltzez forratuak, bakoitza bere xiringa-mutur konikoekin, behiaren errapeetan biratuz sartzeko. Beretzat hartu zuen bat, eta On Pacorentzat bestea.

Etxera itzuli zenean, lagunari azaldu zion Frantziako gertaeraren berri; On Pacori kosta egin zitzaion sinestea, baina ez zion uko egin probatzeari, eta aukera serratatu zitzaion hurrengo aldiaren erabiliko zuela erabaki zuen. Luze gabe izan zuen

<sup>74</sup> 4.9.1841-1.9.1910; Candido Mendizabal Cipitria albaitariaren aitona.

egokiera, egun gutxiren buruan gaixotu baitzen Andoaingo Eguzkitza baserriko behi bat; Candidok azaldu bezala egin zuen, eta baita behia sendatu ere. Harri eta zur geratu zen On Paco.

Pasadizo hau zergatik kontatu dugun galdetuko du batek baino gehiagok. Hona azalpena: Eduardo Respaldiza Ugarte doktore arabarraren biografian egiten den aipamen baten harira dator. Respaldiza jauna goren mailako irakaslea izan zen Zaragozako Albaitaritzako Fakultatean, Infekzioen, Parasitoen eta Ikuskaritzen gaian, eta hango dekanoko izatera ere iritsi zen, 40ko eta 50eko urteetan. Bada, haren biografian esaten da, Albaitaritzako ikasten ari zela, haren aitak Aiarako eskualdean albaitari jarduten zuen garian, Evers alemaniarraren Metodoa (errapeari haize ematea) erabili zuela Eduardok, haren berri izan eta berehala, eta orokortu egin zela gero.

Bi datak alderatzen baditugu, On Pacok eta Candidok probatu zutenekoa -1910. urtea baino lehenago-, eta Eduardo Respaldizak egin zuenekoa, hanka sartzeko arrisku handirik gabe esan dezakegu, lehenengoz Francisco Oquiñena Castillok erabili zuela teknika hori Gipuzkoan, eta Espainian ere aurrenetakoa izango zela.

Albaitaritzako Batasun Nazionalaren Bigarren Biltzarrean parte hartu zuen, Madrilan, 1922. urteko maiatzaren 18tik 23ra, anaia Javier lagun zuela (Agurainen zebilen albaitari, Araban), eta Dimas-Gregorio semea ere bai (Alegiako albaitari zen, Gipuzkoan; garai hartan, Alegria de Oria esaten zitzaion herriari)<sup>75</sup>.

1930eko irailean erretiroa hartu, eta utzi egin zuen albaitari postua.

Albaitaritzaren garai heroikoetan jardun zuen lanean On Pacok, halaxe adierazten du Juan Dorronsoro Ceberio, Beasaingo albaitari izan zenak. Ford-ek artean ez zuen asmatu *mendeko autoa* izango zena, eta gurdiari animaliak lotu, eta hala xe ibiltzen ziren errepideetan joan-etorrian; zaldi-albaitari moduan, oso izen ona eduki zuen Donostian eta inguruan, eta albaitari ferratzaileen artean, arragoa eduki zuen azkena izan zen.

Erljio-sinesmen handikoa zen, eta leku berezia izaten zuen beretzat gordea Andoaingo Parrokian; behin batez, jauna hartzera zihoazen eliztarren ilaran jarria zegoela, abeltzain bat etorri zitzaion, idi bat gaixo zeukala eta zerbait egiteko esanez. Meza bukatu zain egoteko esan zion On Pacok, edo, gutxienez, uzteko Jauna hartzen, baina abeltzaina ez zegoen nolanahe ertsitzeko, lehenbailehen nahi zuen irtenbidea, eta hantxe hasi zitzaion kontaktzen animaliak zer sintoma zituen; nabarmen gaitzitu zen On Paco, errezeta-liburua jakaren patrikatik atera, eta

<sup>75</sup> II. Biltzarraren Liburu Ofiziala; *La Democracia* inprenta; 289. or. Leon, 1922.

hala idatzi zuen formula miragarria, botikariak presta zezan: "*Op: Arnika gutxi; urala dezente; erantsi*". Horrelaxe agindu zion botikariari, hark ulertzeko moduko esapidearekin, abeltzainari *erantsi* behar ziola ordainagiria, haren jarrera gogai-karria *zigortzeko*.

Candido Mendizabal Cipitriak oroitarazten zuenez, azken urteetan, elizara joan eta iruditzen bazitzaion hurrek jokabide desegokia zutela, aldean eraman ohi zuen eskumakilarekin astintzen zituen, beharrezko zela uste zuenean.

*Asteasuko egonaldia.*

Asteasuko Udalak, 1907ko uztailaren 14an egin zuen udalbatzarrean, Juan Roque Astiazaran buru zela, Herriko Haragien ikuskatzaile eta albaitari tituludun izendatzea erabaki zuen, Kideen Udala Batzarrak egindako proposamenari jarraiki (egun horretan bertan egin zuen ezohiko bilkuran hartu zuen Batzarrak erabaki hori<sup>76</sup>); izendapen horrekin, urtebetez behin-behinean aritu zen albaitariaren lekuan jarri zuten, Pedro Munita Gonzalezen lekuan, hain zuzen, zeina Villabona-ko albaitari tituluduna baitzen.

Pedro Munita jaunak gora jo zuen, eta helegitea aurkeztu zuen gobernadore zibilararen aurrean, haren ustez, Udalak erabakia hartu zuenean, indarrean zegoen-eta bere izendapena. Alkateari ez zitzaion gustatu jokabide hori, eta agindu zuen aktan jasota gera zedila Munita jaunak zer-nolako atsekabea sortu zuen, Udalaren asmoa, bat eta bakarra, egoera legezkatzea zelako, eta zenbait herritarrek aurkeztu zituzten kexei irtenbidea ematea (Munitaren jarduna partziala eta bidegabea iruditzen zitzaizela esanez jo zuten Udalera).

Irailearen 15ean, Asteasuko Udalbatzari jakinarazi zioten gobernadore zibilak aintzat hartu zuela helegitea, eta baliorik gabe geratzen zela ekainaren 2an hartu zuten erabakia, non esaten baitzen lehiaketara aterako zutela postua; horrez gain, postua Pedro Munitari itzuli behar zitzaizela adierazten zuen. Udala ez zen ados, eta auzitara joko zuela erabaki zuen<sup>77</sup>, eta Victor Pradera abokatu donostiarra izendatu zuen horretarako; Pradera jaunak irizpen bat idatzi zuen, eta esaten zuen, auzibidea bukatu arte, ez litzaiokeela kargua itzuli behar Munita jaunari.

1907ko abenduaren 22an, Juan Roque Astiazaran alkateak jakinarazi zuen, Pedro Munita jaunak, "*Udal honen agindurik gabe bere karguan jarrarazi duten Albaitari behin-behinekoak*", udal-hiltegian hildako abelburu bat aztertu zuela,

<sup>76</sup> AstUA. Akta-liburua (1906-1909), 93. or.

<sup>77</sup> AstUA. Akta-liburua (1906-1909), 104. or., 104. orrialdearen atzealdea eta 105. or

nahiz eta Pedro Iraola ebakitzaille jaunari agindua emana zion beste albaitariari deitzeko, Oquiñena jaunari eta zera erabaki zutela: “*Al estar la Corporación y la población muy contentos con el servicio que presta el Sr. Oquiñena, se prevenga al Sr. Munita González que la prestación de sus servicios estará subordinada a las necesidades del Ayuntamiento, quien se los requerirá cuando los precise*”<sup>78</sup>.

1908ko martxoaren 17an, Uzcudun, Sarasola eta Zubeldia zinegotziek eskatu zuten ez luketela aurrera jarraitu behar Munitaren izendapenarekin sortu zen auzian, eta onez-onezko irtenbidea bilatu behar litzatekeela, baina alkateak ez zuen nahi izan, inondik ere<sup>79</sup>.

Asteasuko Udalak ekainaren 13an egin zuen udalbatzarrean, Juan Roque Astiazaran alkatea buru zela, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak eman zuen epaiaren xedapenak irakurri zituzten. Hantxe aurkeztu zuen Juan Victor Pradera abokatuak administrazioarekiko auzi-errekurtoa Udalaren izenean, Gipuzkoako Gobernu Zibilak 1907ko irailaren 6an hartu zuen akordioaren kontra, non baliorik gabe uzten baitzen urte hartako ekainaren 2an Asteasuko Udalak hartu zuen erabakia, albaitari tituludunaren postua lehiaketara ateratzea, alegia. Epaiak baliorik gabe utzi zuen gobernadore zibilaren erabakia, eta haren orde, irmotzat eta indarrekoztat jo zuen Udalaren erabakia, eta zera eransten zuen gobernadore jaunak bere komunikazioan, epaia gauza zedila, eta zehatz-mehatz bete.

Hori jakinik, alkateak hala proposatuta, Udalak erabaki zuen Albaitari Tituludun eta Haragien ikuskatzaile kargua kenduko ziola Pedro Munita jaunari, hil horren 15etik aurrera, eta Francisco Oquiñena hasiko zela lan horiek betetzen hilaren 16tik aurrera, 1907ko uztailaren 14an egoki eta zuzen izendatu zuten hura bera<sup>80</sup>.

1909ko ekainaren 20an, Asteasuko Udalbatza bildu zen, Juan Roque Astiazaran alkatea buru zela, eta hark oroitarazi zuen, Auzitegi Gorenak izendatua zela Oquiñena albaitaria, baina egokia izango zela baldintza batzuk jartzea; horri erantzunez, Jose Ignacio Sarasola zinegotziak adierazi zuen, baldintzak argi zeudela lehendik ere, eta abere-hiltzaileak ematen ziola abisua albaitariari, abelbururen bat hiltzen zen bakoitzean Asteasura etor zedila, eta ez zegoela beharrik egun finkorik jartzeko<sup>81</sup>. Gainera, 1909ko ekainaren 27ko udalbatzarrean, adostu zuten 120 pezetako ordaina emango ziotela Haragien ikuskatzaile gisa egiten zuen lanaren sari, hasi 1908ko urtarrilaren 1etik, eta 1909ko ekainaren 30era<sup>82</sup>.

<sup>78</sup> AstUA. Akta-liburua (1906-1909). 278-3; 119. or.

<sup>79</sup> AstUA. Akta-liburua (1906-1909). 278-3; 140. orrialdearen atzealdea.

<sup>80</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 7. orrialdearen atzealdea 8. or.

<sup>81</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912); Sig. 279-1, 9. or.

<sup>82</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 10. or

1909ko uztailaren 25ean, Asteasuko abere-hiltzaileak, Pedro Maria Iraola jaunak, desadostasuna azaldu zion alkate berriari, Jose Matilde Ugalde jaunari, ez baitzitzaien bidekoa iruditzen Haragien ikuskatzaileari abisua eman beharra abelburu bat hiltzen zuten bakoitzean, hura Andoainen bizi zenez, hainbat eragozpen eta gastu sortzen zizkion-eta horrek; Ignacio Zubeldia zinegotziak proposatu zuen albaitaria egunero azal zedila herrira, eta, azkenik, alkateak erabaki zuen, abuztuaren 8ko udalbatzarrean, Haragien ikuskatzailearen ardua izango zela haren beharra noiz zegoen jakitea eta herrira etortzea ikuskatzeren bat egin behar zen aldi oroz<sup>83</sup>. Erabaki horri helegitea jarri zion gure protagonistak, eta gobernadore zibilaren esku geratu zen auzia.

Gauzak okertzen hasi zitzaizkion Asteasun gure protagonistari. 1909ko urriaren 31n, harakin eta abere-hiltzaileak salaketa egin zuen Udalbatzaren aurrean: Haragien ikuskatzailea ez zen agertu abere sail bat bizirik ikuskatzera, eta hilaren 28an eta 29an ziren haiek hiltzekoak; ondorioz, kaltea eragin zitzaion industrialari, eta ezin izan zituzten hornitu herritarrak<sup>84</sup>.

1910eko martxoaren 27an, mozio bat aurkeztu zuten Asteasuko Udalbatzako bi zinegotzik, Sebastian Uriak eta Jose Ignacio Sarasolak, eta zalantzan jartzen zuten legezkoa ote zen Oquiñena jauna, garai hartan Andoaingo Haragien ikuskatzaile, Asteasuko Haragien ikuskatzaile izendatu izana, bere garaian ez zutelako zehaztu zenbat denborarako izango zen izendapen hori eta kontraturik ere ez zutelako egin, eta hala egin behar zela esaten zuten Osasuneko Jarraibide Nagusiak, 1904ko urtarrilaren 13koak, 1906ko ekainaren 29ko Errege Aginduak (EA) eta 1864ko martxoaren 17ko EAk, zeina erabat baieztatu baitzuten 1877ko otsailaren 15ekoak eta 1888ko urriaren 17koak; zehazki, urtebete epea ezartzen zuten, eta kontratu-harremana dokumentatu egin behar zela jakinarazten. Horregatik guztiagatik, Oquiñena kargutik kendu beharra zegoela adierazi zioten alkateari –Jose Matilde Ugalde zen orduan alkate–, eta postu horretarako beste norbait izendatu, indarrean zegoen araudiak esaten zuen bezala. Zinegotziak, gainera, aipamen berezia egin zioten garai batean eduki zituzten eskumenei: “[Prerrogativas que] *en pequenísimo escala, todavía gozan estas provincias de Guipúzcoa, Vizcaya y Álava, ya que la R.O. de 29 de junio de 1906 hizo una excepción en la Instrucción general de Sanidad respecto a estas provincias, no debe aquella olvidarse por los Ayuntamientos para que no pueda decirse que abandonamos y hacemos dejación completa de nuestros derechos*”. Mozioa aho batez onartu zuten<sup>85</sup>, eta berehala etorri zen interesatuaren helegitea.

<sup>83</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 17, 19 eta 20. orr.

<sup>84</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 30. orrialdearen atzealdea.

<sup>85</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 55. or-tik 56. or-ra.

1910eko urriaren 16an, Sebastian Uria, Martin Beobide, Ignacio Zubeldia eta Jose Ignacio Sarasola zinegotziek proposatu zuten, Udaltzarak Aldundira jo zezala, hark gobernadore zibilari zera eska ziezaion, Udalaren alde inibitu zedila Oquiñena albaitariak jarri zuten helegitean<sup>86</sup>, baina Gobernu Zibila ez zegoen, nonbait, gure lege zaharrak aintzat hartzeko, eta esku hartu zuten auzian, eta baliorik gabe utzi zuten Udalaren erabakia, albaitaria postutik kentzekoa, alegia.

Epaia asko mindu zituen Udaleko ordezkariak, eta 1910eko abenduaren 11ko udaltzarrean, administrazioarekiko auzi-helegitea jartzea adostu zuten, baldin eta Aldundiak horretarako baimena ematen bazien<sup>87</sup>.

1911ko urtarrilaren 2an, Francisco Oquiñena jaunak, gobernadore zibilaren agindua betez, Asteasuko Haragien ikuskatzaile postua hartu zuen<sup>88</sup>.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak ez zuten aintzat hartu Oquiñena jaunak aurkeztu zuten helegitea (1911ko uztailaren 9an iritsi zen erabaki hori), eta gobernadore zibilari itzuli zion; Udaleko kideek erabaki zuten, gobernadoreari zuzenduko zitzaizkiola, eta eskatuko ziotela Aldundira bidal zezala epaia, han azken erabakia har zezaten<sup>89</sup>. Azkenik, Aldundiak ontzat jo zuten Udalaren erabakia, eta behin betiko kendu zuten Francisco Oquiñena Erro jauna Asteasuko Haragien ikuskatzaile kargutik.

### 3.5. Dimas-Gregorio Oquiñena Erro (Ibero (Nafarroa), 1895/03/25-Donostia, 1972/03/14).

Francisco Oquiñena Castillo izan zuen aita, *On Paco*, Olaztiko semea bera (Nafarroa), eta Bernardina Erro Castillo ama, Ziordiko alaba (Nafarroa).

Iberon jaio zen, Nafarroan, 1895eko martxoaren 25ean; aitak Andoaingo udalalbaitari postua eskuratu zuela eta, hara aldatu zen familia, urte horretan bertan, bukaera aldera.

Batxilergoa amaitu zuenean, Zaragozara joan zen, Albaitaritzako Goi Eskolan ikasketak egitera; ikasle ona izan zen, eta 1916an bukatu zituen ikasketak.



<sup>86</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 82. or. eta 82. orrialdearen atzealdea

<sup>87</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 89. orrialdearen atzealdea.

<sup>88</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 94. or.

<sup>89</sup> AstUA. Akta-liburua (1909-1912). 279-1; 122. or. eta 122. orrialdearen atzealdea.

Amezketako Udalak egin zuen deialdiari<sup>90</sup> erantzunez (1917ko martxoaren 31ko udaltzarrean erabaki zuten halaxe egitea, Juan Eceiza buru zela), Haragien ikuskatzaile albaitari postua bereganatu zuten.

Emilia-Vicenta Morales Echeverria andrearekin ezkondu zen, Tolosakoa bera, eta lau seme-alaba izan zituzten, hiru alaba eta semea.

1921eko ekainaren 7an, Alegiako albaitari tituludun eta Haragien ikuskatzaile izendatu zuten, lehiaketa irabazita.

Albaitaritzako Batasun Nazionalaren Bigarren Biltzarrean parte hartu zuten, Madrilan, 1922. urteko maiatzaren 18tik 23ra, osaba Javier lagun zuela (Agurainen zebilen albaitari, Araban), eta aita Francisco ere bai, Andoaingo albaitaria<sup>91</sup>.

1923ko urriaren 2an, Primo de Rivera jeneralaren diktadura ezarri berrian, Alegiako alkate hautatu zuten.

1930eko irailaren 1ean, Abere Higiene eta Osasuneko udal ikuskatzailearen titulua<sup>92</sup> eskuratu zuten. Izendapen hori arautzen zuen Errege Aginduaren arabera, postu bat jabetzan edukitzea zen hori lortzeko baldintzetako bat, eta hark bazuen<sup>93</sup>.

1932ko apirilean, Gipuzkoako albaitariak omenaldia egin zioten Felix Gordon Ordas jaunari, Gipuzkoara bisitan etorri zelako. Donostiako Casa Nicolasa jatetxean egin zuten ospakizuna, eta han zen gure protagonista ere.

1936ko uztaila arte egon zen Alegian. Altxamendu faxistaren aldekoak Gipuzkoan sartu ziren, eta beste hainbatek bezala, erbestera jo behar izan zuten; Dimas-Gregoriok Venezuelara egin zuen ihes.

Herrialde hartan, Jose Oñatibia Audela gipuzkoar albaitariaren aholkuz eta laguntzaz, Venezuelako herritartasuna eskuratu zuten, eta Abeltzaintza Zuzendaritzan sartu zen, Nekazaritza eta Hazkuntza Ministerioaren menpe zegoen erakundean, eta ibilbide oparoa egin zuen, 1949. urtea arte.

<sup>90</sup> GAO, 46. zbk, 1917/04/16.

<sup>91</sup> II. Biltzarreko Liburu Ofiziala; *La Democracia* inprenta; 289. or. León, 1922.

<sup>92</sup> Abere Higiene eta Osasuneko Ikuskaritza Nagusia; Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia; Ekonomia Nazionalako Ministerioa. 67. or, Erregistro Nagusiaren 1127. zbk eta dagokion Liburuaren 3. Ataleko 1093. or.

<sup>93</sup> EA, 74. zbk, 1930/01/16koa, Ekonomia Nazionalako Ministerioarena. (26ko *Gaceta de Madrid*; garai batean horrelaxe deitzen zitzaion Estatuko Aldizkari Ofizialari).

Albaitari Tituludunen Taldean sartu zen berriz, eta Santa Maria de Ortigueirara bidali zuten lanera<sup>94</sup> (A Coruña).

Itzuli eta gutxira, papergintza-industrian aritzen zen hernaniar batek, Bernabe Armendariz jaunak, nekazaritza-ustiategi handi bateko zuzendaritza teknikoa eskaini zion Utebon (Zaragoza), eta hantxe jarri zen bizitzen aldi batez, Donostia ingurua ahaztu gabe, dena den.

1964ko agirietan, Mutrikun ari dela irakur liteke<sup>95</sup>.

1972ko martxoaren 14an hil zen, Donostian zuen etxean<sup>96</sup>.

### 3.6. Jose Larreta Aguirre (Amezketak, 1874/06/30- ?).

Amezketan jaio zen Jose Simon Florentino. Jose Maria zuen aita, Amezketakoa, eta Dominica ama, Abaltzisketakoa<sup>97</sup>.

1893-94 ikasturtean hasi zen Zaragozako Albaitaritzaren Eskolan, eta ikasle ona izan zen: *emaitza ona* lortu zuen matrikulatu zen ia ikasgai guztietan. 1898ko maiatzaren 24an eta 25ean, *“ikasketa amaierako azterketa egin zuen, eta gainditutzat eman zizkioten ariketa guztiak”*. Urte horretako abuztuaren 18an, Gipuzkoako gobernadoreari helarazi zioten titulua<sup>98</sup>.

1900. urteko martxoaren 29an, Andoainen ageri da<sup>99</sup>, eta 1901eko abenduaren 25eko udalbatzarrean, Hipolito Erausquin alkatea buru zela, atzera bota zuten Larrea albaitariaren idazki bat, non bere burua eskaintzen baitzuen lanerako: *“Teniendo conocimiento de que el Veterinario Titular ha solicitado aumento de sueldo por su empleo de inspección de carnes, se ofrece a desempeñar dicho cargo más la inspección de las reses que se sacrifiquen en casas particulares por enfermedad o desgracia, con el sueldo de ciento ochenta pesetas anuales que corresponden a esta villa con arreglo a la tarifa establecida en la R.O. de 17 de marzo de 1864”*<sup>100</sup>.

<sup>94</sup> BOE, 75. zbk, 1951/03/16.

<sup>95</sup> BOE, 169. zbk, 1964/07/15.

<sup>96</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M.. *Veterinarios vascos en el exilio como consecuencia de la Guerra Civil 1936-1939*. RSBAPren Buletina. LVI – 2-2000 Liburukia, 399-442 orr.

<sup>97</sup> GEAH. Amezketako Parrokia; 11. Bataio-liburua, 161. orrialdearen atzealdea, 24. idazpena.

<sup>98</sup> ZFAH. Matrikula-liburua 1888-1894, folio 358.

<sup>99</sup> Martina Apalategi Arrese medikuaeren doktore-tesiaren 1053. orrialdean ageri den aipamena.

<sup>100</sup> AUA, Akta-liburua, 74. zbk, 118 or.

1900. urteko abenduaren 31n, sei hilabete zeramatzan Andoainen bizitzen, eta Zumea kaleko 15ean zegoen erroldatua, Federico Orbegozo Osambela<sup>101</sup> ferratzailearen etxean.

Andoainen ezkondu zen, Juana Urain Otegui andoaindarrarekin, eta bi seme-alaba, behintzat, eduki zituzten, Nicolas eta Lucia, baina oso gazterik hil ziren biak, Ondarroan (Bizkaia): 1912ko urtarrilean Nicolas eta ekainean Lucia.

1901eko apirilaren 1ean, Hondarribiko udal ikuskatzaile albaitari postua hartu zuen, eta urte bereko abuztuaren 12an utzi zuen; Andoaina itzuli zen berriz, emaztearen gurasoen etxera<sup>102</sup>.

1903ko otsailaren 19an, Zumaiako alkate Esteban Arangurenek zera jakinarazi zien Udaleko gainerako kideei, Zumaiako Haragien ikuskatzaile posturako egin zuten deialdira Jose Larreta Aguirre bakarrik aurkeztu zela, eta hautagaiek bete behar zituzten baldintza guztiak betetzen zituela; ondorioz, berehala izendatu zuten, eta hil horren 21ean hartu zuen kargua.

1904ko urtarrilean, Larretaren eskariz, Aranguren alkateak bandoa atera zuen, herritarrei oroitarazteko galarazia zegoela txerri-aziendak etxeetan hiltzea, albaitaria jakinaren gainean egon gabe. Handik gutxira, albaitariak egindako txosten bat iritsi zitzaion Udaleko kideei; txerri-azienda bat hil, eta zistizerkosia izeneko gaixotasuna antzeman ziola jakinarazten zuen, eta honela nabarmentzen zuen *“[únicamente se podían aprovechar] las mantecas y el tejido adiposo o tocino, pero de ninguna manera la parte magra, que debía destruirse mediante incineración, lo que se hizo en presencia del propietario, un concejal y el propio veterinario”*. Akta-liburuan ageri denez, Udalbatzak zoriondu egin zuen hain lan ona egiteagatik.


Egun batzuen burua, animalia jabeak laguntza ekonomikoren bat eskatu zion Udalari, izan zuen galerari erantzuteko (40 pezeta ingurukoa izango zela adierazten zuen). Martxoaren 10ean, Udalbatzak onartu egin zuen eskaria, eta huraxe izan zen udalerriko Aseguru Elkartek egin zuen lehen ekarpena. Antzeko egoerei aurre egiteko helburuz sortu zuten erakunde hori, eta abeltzain guztiek parte hartzen zuten.

Elkartea kudeatzeko, bi zinegotzi izendatu zituzten, Jose Manuel Echenique eta Jose Ventura Ibarra, bi urdaigile, Manuel Zubia eta Antonio Urbieta, eta Jose Larreta Aguirre albaitaria.

<sup>101</sup> AUA, B.9.II-67H/1.1901eko Errolda.

<sup>102</sup> AUA, B.9.II-67H/3.1902ko Errolda, 44. or.





Jose Larreta Aguirre  
Artxiboko argazkia:  
Bizkaiko Albaitarien Elkargoa.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako lehen lehiaketaren sustatzaile izan zen Larreta Zumaian; 1904ko apirilaren 16an egin zuten, eta epaile-lanak egin zituen.

1905eko apirilean, ofizialki desagertutzat eman zuen Oikiako bi baserritan, Errenterian eta Epiola Azpikoan, agertu zen gaixotasuna, pleuropneumonia epizootikoa zelakoa, eta ukuiluak ere desinfektatutzat eman zituen. Garai hartan, Aseguruen Probintziako Elkartearen albaitari ikuskatzaileak, Leon Olalquiaga Aseguinolaza jaunak (hura izan zen Zumaiako albaitari, Larretaren aurretik), Gipuzkoako azientaren hilkortasunaren kontra eman zituen oharra argitaratu ziren, abeltzainek jakin zezaten zer higie-neurri

hartu behar zituzten *glosopeda* izeneko gaixotasun larria saihesteko. Urte horretan bertan, 1905ean, Larretak zera jakinarazi zion Udalbatzari, egokia izango zela abeltzainei ohar horiek helaraztea.

1911ko maiatzaren 4an, Larretak Udalbatzari adierazi zion Ondarroako albaitari ikuskatzaile izendatu zutela, eta hara joango zela. Hortxe galdu ditugu Larretaren berriak, eta ez dakigu aurrerantzean nondik nora ibili zen.

### 3.7. Jesus Oquiñena Erro (Andoain, 1904/05/27–1957/07/25).

On Paco zuen aita, *Albaitari zaharra*, eta, ondorioz, *Albaitari gaztea* deitzen zioten berari.

Andoaingo Kale Nagusian jaio zen, 1904ko maiatzaren 27an. Francisco Oquiñena Castillo zuen aita, *On Paco*, Olaztiko seme (Nafarroa) eta Andoaingo albaitaria, eta ama, Bernardina Erro Castillo, Ziordiko alaba (Nafarroa)<sup>103</sup>.

Tolosan egin zuen batxilergoa, Eskolapioen eskolan, eta, aitaren bideari jarraituz, Zaragozako Albaitaritzako Eskolara jo zuen gero. 1924an bukatu zuen karrera. Hona haren ikasketa-ibilbideari buruzko oharra:

<sup>103</sup> GEAH. Toursen Parrokia, Andoain; 13. Bataio-liburua, 37. orrialdearen atzealdea, 33. zbk.

“*Jesús Oquiñena Erro. Natural de Andoain, provincia de Guipúzcoa, de 16 años, nacido el día 27 de mayo de 1904, ingresó en esta Escuela de Veterinaria de Zaragoza en setiembre de 1920, presentando una certificación de ser Bachiller, expedida en 11 de Setiembre de 1920 por el Instituto de Vitoria.*

*Título de Bachiller expedido en 11 de abril de 1922, Universidad de Valladolid.*

*El Secretario*

*Curso de 1919 a 1920. Enseñanza no oficial. Epoca Extraordinaria. Se matriculó en las asignaturas de Física, Química e Historia Natural, correspondientes al Preparatorio y en los exámenes extraordinarios de Setiembre obtuvo la calificación de Aprobado en Física, Química e Historia Natural.*

*El Secretario*

*Curso de 1920 a 1921. Enseñanza oficial. Se matriculó en las asignaturas de Histología Normal, Anatomía etc. y Técnica Anatómica.*

*El Secretario*

*En los exámenes ordinarios de Mayo, obtuvo la calificación de Sobresaliente en Histología Normal y Anatomía etc. y Aprobado en Técnica Anatómica.*

*Figura en el Cuadro de Honor de Anatomía etc. e Histología Normal.*

*El Secretario*

*Curso de 1921 a 1922. Enseñanza oficial. Se matriculó en las asignaturas de Fisiología, Higiene y Parasitología, etc.*

*El Secretario*

*Exámenes de Mayo. Sobresaliente en Fisiología e Higiene y Notable en Parasitología, etc.*

*Figura en los Cuadros de Honor de Fisiología e Higiene.*

*El Secretario*

*Curso de 1922 a 1923. Enseñanza oficial. Se matriculó en Patología General, etc., Patología Especial, etc., Terapéutica, Etc. y Enfermedades Parasitarias, etc.*

*El Secretario*

*Exámenes de Mayo. Aprobado en Patología General, etc. y Sobresaliente en Patología Especial, etc., Terapéutica, etc. y Enfermedades Parasitarias, etc..*

*Figura en los Cuadros de Honor de Patología Especial, etc. y Terapéutica, etc.*

*El Secretario*

*Curso de 1923 a 1924. No oficial. Epoca ordinaria. Se matriculó en Patología Quirúrgica, Operaciones, etc., Obstetricia, Podología, Inspección de carnes, etc., Morfología o Exterior, Agricultura y Zootecnia.*

*Exámenes de Junio: Notable en Patología Quirúrgica, Operaciones, etc., Obstetricia, Podología, Morfología o Exterior y Zootecnia.*

*Aprobado en Agricultura y Sobresaliente en Inspección de carnes, etc.*

*El Secretario*

*Comprendido en el Real Decreto de 10 de marzo de 1917.*

*En 14 de junio de 1924, hizo el depósito para obtener el Título.*

*El Secretario”<sup>104</sup>.*



<sup>104</sup> ZAFH. Matrikula-liburua 1918-1925, 80. or.

1925eko urtarrilean, Gipuzkoan kolegiatu zen, eta 22. zenbakia eman zioten.

Aitarekin egin zituen laneko lehen saioak, eta Donezteben aritu zen ondoren, Nafarroan.

1930ean, Andoaina itzuli zen; erretiroa hartzeko adina etorri zitzaion aitari, eta hark utzi zuen postua betetzera etorri zen, hartarako deialdia<sup>105</sup> argitaratu zuen eta Udalak. Bera bakarrik aurkeztu zen lehiaketara, eta Udaltzako, ikusirik zer dokumentazio aurkeztu zuen bere garaian, aho batez onartu zuen albaitari titulu-dun eta Abere Higiene eta Osasuneko ikuskatzaile izendatzea. 1930eko azaroaren 11n izan zen udalbatzar hori<sup>106</sup>, Benito Garagorri Mendizabal alkate zela.

Adunako albaitari ere izan zen, eta, aldi batez, baita Larraulgoa ere.

Tokiko Osasun Batzordean, kide gisa ageri da 1932ko uztailaren 25ean egin zuten batzarrean, Evaristo Barriola behin-behineko alkatea buru zela, eta 1954ko abuztukoan ere bai, Justo Espin Ondarra alkatea buru zela<sup>107</sup>.

1933ko azaroaren 15ean ezkondu zen, Andoainen, Tourseko San Martinen Parrokian, Mercedes Perello Berazarekin. Usurbilgo alaba zen, baina Andoainen bizi zen<sup>108</sup>. Bost seme-alaba eduki zituzten: Joaquin, M<sup>a</sup> Cruz, M<sup>a</sup> Asuncion, M<sup>a</sup> Mercedes eta Jose Ignacio.

1936ko abuztuaren 17an, altxamendu faxistaren aldekoek hartu zuten herria. 1936ko abenduaren 16an, Andoaingo Udalak, Domingo Soroa Atorrasagasti tradizionalista buru zuela, informazio bat irekitzea erabaki zuen, gure protagonistak zer jokabide eduki zuen argitzeko eta, hala komeni balitz, zerbitzutik kentzeko. Hainbat txosten eskatu zituen: Guardia Zibilaren komandanteari, Gipuzkoako Karlisten Gerra Batzordeko ordezkari buruari, Zirkulu Tradizionalistako Zuzendaritza Batzordeari eta Falange Españolako tokiko buruari. Hauxe argitu nahi zuten: “*Si la actuación de dicho funcionario, bien por pertenecer a alguno de los partidos que constituían el denominado Frente Popular o al nacionalismo vasco, bien por simpatizar con ellos y apoyarlos en las elecciones, ha contribuido a que España llegara al estado de anarquía que ha padecido y aún padecen algunas provincias y si en los actuales sucesos se le ha notado inclinación contraria al Movimiento Nacional o sintiéndose indiferente, no ha demostrado el amor a España que debe ser primordial en todo ciudadano y especialmente exigido a los funcionarios públicos*”<sup>109</sup>.

<sup>105</sup> Gaceta de Madrid (GM), 1930/09/24.

<sup>106</sup> AUA, Akta-liburua, 89. zbk, 227. orrialdearen atzealdea eta 228. or.

<sup>107</sup> AUA, A.18.I-LH/212.

<sup>108</sup> Toursko San Martinen Parrokia, Andoain; 5. Liburua, 108. orrialdearen atzealdea; 13. zbk.

<sup>109</sup> AUA, A.9.-14H/5.

Alkatearen eta idazkariaren aurrera agertu zen 1936ko abenduaren 28an, eta honela adierazi zuen: “*Nunca perteneció a ningún partido político, ni pisó local social alguno donde se instalaban, dentro y fuera de Andoain.... Y que en las elecciones del pasado mes de febrero votó a una candidatura de derecha y que sus actuaciones en la Villa, antes y después de ser liberada fueron únicamente profesionales, lo que dejaba fuera de toda duda su amor a España*”.

Pablo Echeveste zinegotziaren eskuetan utzi zuten espediente bideratzeko ardura, eta hark, Zirkulu Tradizionalistako lehendakariari hartu zion deklarazioa, Jose Jauregui Zabalarari, eta haren hitzetan, funtzionarioarekin harreman gutxi eduki arren, ikusten zuen Euzko Alderdi Jeltzaleko afiliatuek eta haren aldekoek osatzen zutela haren lagunartea.

Jose Maria Aizpurua Zuloaga industria-gizona hartu zuen hurrena, Zirkulu Tradizionalistakoa, eta Jauregui Zabala jaunak bezalatsu irudikatu zuen hark ere: “*Votante de los nacionalistas (...) lector del periódico nacionalista ‘El Día’, de San Sebastián y que consideraba mantenía una situación expectante ante el desarrollo del Movimiento Salvador*”.

Miguel Huici Marzol ere mintzatu zen, eta hark ere euskal abertzale gisa eta *El Día* egunkariaren irakurletzat aurkeztu zuen. Guardia Zibilaren komandantea ere iritzi berekoa zen, baina honako ñabardura hau egin zuen: “*No desarrolló actividades contrarias al Movimiento, pero tampoco lo apoyó con entusiasmo, manteniendo una actitud acomodaticia y expectante, adaptable a su particular conveniencia*”.



Andoaingo udal-hiltegia  
Kutxa fototeka.

Oquiñenak helegitea aurkeztu zuen, kalumnia funsgabetzat jotzen baitzituen ordu arteko esanak, eta dokumentuak eta testigantzak ere aurkeztu zituen gauzak bestela *zirela* erakusteko, baina Pablo Echeveste instruktore eta zinegotziak ez zituen aintzat hartu, Oquiñenak aurkeztu zituen txosten guztiak faltsutuak zeudelako haren ustez, eta hura postutik behin betiko kentzeko proposamena egin zuen. 1937ko otsailaren 8ko udalbatzarrean hartu zuten erabakia: Jesus Oquiñena Erro udal ikuskatzaile albaitaria postutik kentzea erabaki zuten, eta haren karguari zegozkion eskubide guztiez gabetzea.

Valladolideko gobernadore nagusiari aurkeztu zion helegitea; bitarte horretan, gure protagonista postutik baztertu zuen Udal Batzordea kargutik kendu zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak, 1937ko martxoan, “*por no proceder con el elevado espíritu de rectitud y justicia al que estaba obligada*”; ondorioz, 1937ko irailean, Jose Maria Trecu Alcain alkate berriak erabaki zuen, berriz aztertuko zuela espedientea; itxuraz, auziak ez zion ondorio larrikeri ekarri gure protagonistari, eta horretan lagunduko zuen, beharbada, haren izen onak eta, batik bat, herriko apai-zarekin zeukan adiskidetasunak. Garai hartan, Joaquin Bermejo zebilen apaiz Andoainen, gero Ordiziako artzapez izango zena.

Haren semeak kontaktzen duenez, Joaquin Oquiñena Perello donostiar abokatu eta horien elkargoko dekanok izanak, behin, Ciano kondea zen etortzekoa Donostiara, Mussoliniren suhia, eta Udalak bandoa atera zuen Andoainen, esanez gizon guztiek hari ongietorria egitera joan behar zutela, falangistaz jantzita; aitak aitzakia bat asmatu zuen, abereren bat erditzeaz zegoela Garate baserrian (herrigunetik ordu eta erdira zegoen).

Borondate *oneko* norbaitek, ordea, Gurdia Zibilari eman zion horren berri, eta hantxe agertu zitzaizen sarjentua etxean, aitari oroitarazteko “*aitzakiarik gabe*” bete beharreko agindua zela; Joaquin haurra harri eta zur geratu zen sarjentua etxean sartu zenean, eta are gehiago aita *mozorroa* jantzita joaten ikusi zuenean.

Hernanin, Urnietan eta Goizuetan ere aritu izan zen, hango baserrietan; bizikletan joaten zen hasieran leku horietara, Peugeot markako txirrindu hori batean, eta motorean gero, NA-8105 matrikulako Lambretta batean. Gipuzkoan itxarote-zerrenda handia zegoen motorrak eskuratzeko, eta Nafarroan erosi zuen. Ospe handia lortu zuen, lanean ona eta eraginkorra zelako, eta beti izan zuen lagun izen on hori.

Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldeko Zerrendan, 1952ko uztailekoan<sup>110</sup>, 1.360. zenbakia dauka, eta Andoainen ari dela esaten du.

Musikazalea zen oso, eta etxeko irradian entzun ohi zuen; pazientzia gutxi zuen, ordea, gustuko sintonia aurkitzeko, eta gurpiltxoari jira eta bira ibiltzen zen, zarata desatseginak besterik entzuten ez zituela. Horregatik, Joaquin semeari agintzen zion zeregin *tekniko* hori.

1957ko uztailaren 25eko jaiegunean, Donostiara joatekoak ziren arratsaldean, paseotxo bat ematera. Gure protagonistak ez zuen gogo handirik, susmatzen zuen-eta bero itogarri harekin nola egongo zen Donostia, udatiarrez bete; haren zorionerako, eta Mercedes emaztearen zoritxarrerako, abisua heldu zitzaion Andoaingo Allurralde baserritik, erditzeaz zegoela abelbururen bat eta joateko.

<sup>110</sup> BOE, 289. zbk, de 1952/10/15, Eranskina, 15. or.

Lanak bukatu eta gero, gurasoen etxean geratu zen afaltzera, eraikin berean bizi ziren eta (lehen solairuan gurasoak eta hirugarrenean bera); mahai inguruak eginda, etxera igo zen. Bero handiko gaua zen, eta semeari eskatu zion jar zezala irradian musika pixka bat, ohetik entzuteko; ohean zegoela, bihotzekoak eman zion bat-batean, eta hantxe hil zen.

Joaquin semeak kontaktzen du, ohiko duen ironiarekin, aztoramendu handia sortu zela, jende asko etorri zela bisitan, familiakoak, medikua, auzoak, lagunak... eta zenbait gauza desagertu egin zirela senar-emazteen logelatik, eta aitak zerman erlojuarenean, Cyma markakoa, norbaitek eraman zuela.

Hurrengo egunean, hilaren 26an, udal-hiltegian egitekoak zituen lanak, haren kide, ikasle eta lagun batek egin zituen, Luis Miranda Martinez albaitari donostiarrak.

Hilaren 27an izan zen hileta-elizkizuna, Andoaingo Parrokian<sup>111</sup>.

**3.8. Manuel Irusta Zabala** (Berriatua (Bizkaia), 1917/06/17– Getxo (Bizkaia) 1991/10/18<sup>112</sup>).

Julian Irusta Elu zuen aita, Berriatukoa (Bizkaia) eta Juana Zabala Elu ama, Xemeingoa (Bizkaia); aitaren aldeko aitona-amonak, Jeronimo Irusta eta Josefa Antonia Elu zituen, biak Berriatukoak, eta amaren aldekoak, Domingo Zabala, Xemeingoa eta Dominga Elu, Berriatukoa<sup>113</sup>.

Leongo Albaitaritza Fakultatean egin zituen ikasketak, eta 1950ean bukatu zituen.

M<sup>a</sup> Alejandra Ruiz Oriberekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuten, Juan Manuel.

Osasun arloko Diplomatura egin zuen, eta Intseminazio Artifizialeko Espezialistaren titulua eskuratu zuen.

1953ko abuztuaren 11n, Deban hasi zen lanean, aldi baterako, eta halaxe jarraitu zuen 1955eko otsailaren 21 arte. Orduantxe hartu zuen postua albaitari tituludunak, eta Iruna bidali zuten hil horren 22an, Gipuzkoara, hango bigarren postua betetzera; Zestoara joan zen gero, eta Gipuzkoako herri horretan egon zen 1956ko abenduaren 6a arte.



<sup>111</sup> GEAH. Andoaingo Parrokia. 8. Heriotza-liburua, 257. or., 32. zbk.

<sup>112</sup> Getxoko EZ (Bizkaia), 41. Liburukia, 160. or.

<sup>113</sup> Berriatuko EZ (Bizkaia), 2. Liburukia, 1. Atalaren 92. or.

Debara itzuli zen 1956ko abenduaren 14an, eta albaitari tituludunaren postua hartu zuen, 1957ko uztailaren 17a arte. Lekualdatze-lehiaketa egin zuten urte horretan, eta postuaren jabeak hartu zion lekua; ondorioz, Andoaina etorri zen, aldi baterako: 1957ko uztailaren 30ean hartu zuen postua, eta 1959ko urtarrilaren 3a arte egon zen.

Zestoara itzuli zen berriz, 1959ko otsailaren 5ean, eta han aritu zen urte horretako azaroa arte; handik, Bidanira joan zen.

Albaitari Tituludunen Taldean sartu zen lehiaketa bidez, eta 1959ko uztailaren 31ko Aginduari jarraiki<sup>114</sup>, lekualdatze-lehiaketaren bidez, Soto de Camerosera bidali zuten (Errioxa), zerrendan 5.218. zenbakia zuela.

Gipuzkoara itzuli zen berriz ere, lekualdatze-lehiaketaren bidez, eta 1961eko irailetik<sup>115</sup> 1973ko urria bitarte, Bidanian aritu zen, hango postuaren jabe eginda.

Albaitari Tituludunen Taldeko Zerrendan, 1963an argitaratu zutenean<sup>116</sup>, 4.801. zenbakia dauka, eta Bidanian ari dela esaten du. 1953ko martxoaren 25ean sartu zen taldean, eta zapi urte eta hamar hilabeteko zerbitzu konputagarria egina zuen.

Beste lekualdatze-lehiaketa batean parte hartu zuen 1973ko urriaren 31n, eta lbarrangeluko udal ikuskatzaile albaitari postua hartu zuen, Bizkaian. Hantxe bukatu zuen bere lan-ibilbidea.

Bermeoko Albaitaritzza Barrutia ere haren esku egon zen, 1974ko otsailaren 9tik 1977 arte; postuaren jabe zenak eskuratu zuen urte hartan, Rafael Uribarrena Barrecheguren.

1985eko ekainaren 17an hartu zuen erretiroa.

### 3.9. Jose Antonio Serna Rujas (Valdecilla -Medio Cudeyo- (Kantabria), 1916/07/17 - Pontevedra, 2005/03/28).

Sebastian Serna Juarros zuen aita, Padilla de Arribako semea (Burgos) eta Oinarrizko Hezkuntzako irakaslea, eta Rosario Rujas Rujas ama, Herrera del Pisuergako alaba (Palentzia)<sup>117</sup>.

<sup>114</sup> BOE, 194. zbk, de 1959/08/14.

<sup>115</sup> BOE, 152. zbk, 1961/06/27.

<sup>116</sup> BOE, 263. zbk, 1963/11/02.

<sup>117</sup> Solaresko EZ (Medio Cudeyo), 33. Liburua, 179. or., 1. Atala, 179. idazpena.

Madrilgo Albaitaritzza Eskolan egin zituen ikasketak, eta 1940ko urriaren 11n bukatu zituen.

1941eko urrian Madrilan egin zen ikastaroaren Epaimahaiak egin zuen proposamenari jarraituz, Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldean sartu zen, 81. zenbakia zuela. Garai hartan, Mariano Rodriguez Torres jauna zen Abeltzaintzako zuzendari nagusia.

Tierra de Campos herrian izan zuen lehen lanlekua, Palentzia iparraldean, Villarracino udalerrian; aldi baterako hartu zuen postua, 1941eko abenduaren 1ean, eta egoera hartantxe egon zen 1942ko maiatzaren 31 arte. Postua betetzeko deialdia egin zuten gero, eta postuaren jabe egin zen, 1942ko ekainean.

Baina mugitu zalea izan, nonbait, eta ordurako izena emana zuen lekualdatze-lehiaketan, eta 1942ko ekainaren 20an, Cartagenako udal ikuskatzaile albaitari postua hartu zuen, Murtzian.

Ez zitzaion asko gustatu, nonbait, Mediterraneo ertzeko herri hura, eta derrigorrezko aldia bukatuta, urtebeteren buruan, alegia (1943ko urriaren 19an), postua utzi eta lanleku berria eskatu zuen<sup>118</sup>. Hartu beharrekoak hartu, eta Gondomarrera joan zen (Pontevedra), Val Miñor ingurura, O Galiñeiro mendilerroaren eta Miñon ibaiaren erriberaren artera, Vigotik hurbil. 1943ko urtarrilaren 5ean hartu zuen postua.

Han zegoela, Dolores Oliveira bertako alabarekin ezkondu zen, eta seme bat, behintzat, eduki zuten, Miguel Angel.

1944ko urtarrilaren 26an<sup>119</sup>, Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldean sartzeko lehiakideen saileko Zerrenda bateratu behin-behinekoa argitaratu zuten, eta 1415. zenbakiarekin ageri da; lanlekua Gondomarren zuela esaten da, Pontevedran.

Baina 1951ko maiatzaren 8an, Rías Baixas ingurua utzi eta Toro (Zamora) ingurura jo zuen, Belver de los Montesera, hain zuzen. 1950eko urriaren 7an egin zuten deialdia lekualdatze-lehiaketa horretan parte hartzeko, eta 1951ko otsailean argitaratu zituzten emaitzak<sup>120</sup>. Postu berria, berriz, 1952ko urtarrilaren 9an hartu zuen.

<sup>118</sup> BOE, 1942/09/16.

<sup>119</sup> BOE, 48. zbk, 1944/02/17, Eranskina.

<sup>120</sup> BOE, 75. zbk, 1951/03/16.

1951ko apirilean argitaratu zuten Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldeko Zerrendan<sup>121</sup>, 1.043. zenbakiarekin ageri da gure protagonista. Zamorako udalerrri horretan ari dela esaten da, han duela postua; urtebete geroago argitaratu zuten zerrendan, berriz, 1.044. zenbakia dauka<sup>122</sup>.

Bi urte egin zituen Tierra de Camposen, eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak 1952ko urriaren 16an deitu zuen lekualdatze-lehiaketan parte hartu zuen berriz; lehendik zeukan postua utzi zuen 1953ko martxoaren 5ean, eta ordurako ezagutzen zuen lekura joan zen, Gondomarrera, hain zuzen (Pontevedra). Hurrengo egunean hartu zuen hango postua.

Ohitura bihurtu zen gure protagonistarentzat lehiaketetan parte hartzea, eta beste behin ere aurkeztu zen<sup>123</sup>; urte hartako martxoan postua utzi, eta Extremadura aldera abiatu zen. 1955eko martxoaren 14an, udal ikuskatzaile albaitari postua hartu zuen Villagonzalon, Badajozen, eta 83. zenbakiarekin kolegiatu zen lurralde hartako Albaitari Elkargoan.

Inguru hura gustatu ez zitzaiolako, edo jendea edo klima, ez dakigu zergatik, baina lanlekua aldatzeko eskaera egin zuen, eta 1955eko azaroaren 4an, Castronuñon eman zioten postua<sup>124</sup> (Valladolid), eta 1956ko otsailaren 13an utzi zuen Badajozkoa.



Duero ertzean egon zen 1958ko abendua arte; urte horretako abenduaren 16an<sup>125</sup>, familia eta gainerakoak hartu, eta Gipuzkoarako bideari ekin zion.

1959ko urtarrilaren 3an, Andoaingo albaitari tituludunaren postua hartu zuen; 10.750 pezetako soldata zeukan urtean, eta bi ordain berezi, uztailean eta abenduan.

Gipuzkoako Albaitari Elkargo Ofizialean, 110. zenbakia egokitu zitzaion.

Bi urteko egonaldia egin zuen Andoainen, eta berriz ere lehiaketa batean esku hartu zuen (1961eko uztailean<sup>126</sup> agertu zen emaitza), eta Castronuñora joan zen berriz, Valladolidera; 9.500 pezetako soldata eduki zuen han, eta bi ordain berezi. 1961eko irailaren 25ean hartu zuen postua.

<sup>121</sup> BOE, 289. zbk, 1952/10/15, Eranskina, 17. or.

<sup>122</sup> BOE, 289. zbk, 15.10.1952/10/15, Eranskina, 15. or.

<sup>123</sup> BOE, 1955/01/01

<sup>124</sup> Ministerioaren Agindua (MA), 1956/01/16

<sup>125</sup> BOE, 213. zbk, 1958/12/30.

<sup>126</sup> BOE, 206. zbk, 1961/08/29.

Bi urteko egonaldiaren ondotik, jaioterrira itzultzea erabaki zuen. Lehiaketan parte hartu, eta emaitzak atera zirenean<sup>127</sup>, Castronuñon zeukan postua utzi (1963ko abuztuaren 6an), eta bere lanleku berrirako bidea hartu zuen. Hamaika urte zeramatzan Albaitari Tituludunen Taldean, eta Marina de Cudeyon egokitu zitzaion postua, Kantabrian, bere jaioterrira barne hartzen zuen barrutian. 1963ko abuztuaren 7an hartu zuen postua.

1963an argitaratu zuten Albaitari Tituludunen Taldeko Zerrendan<sup>128</sup>, 1.084. zenbakiarekin ageri da (4.855 albaitari tituludunen artetik), eta lanlekua Castronuñon duela esaten da, Valladoliden.

Kostaldea utzi, eta lehorrerako bidea hartu zuen berriz ere. 1976ko urtarrilaren 28an, Marina de Cudeyon (Kantabria) zeukan postuari uko egin zion Jose Antonio Serna Rujasek, eta Arevalora abiatu zen, Avilara, hango albaitari tituludun izendatu baitzuten<sup>129</sup>. 1976ko otsailaren 2an hartu zuen postua, eta hango elkargoan kolegiatu zen.

Beste bi urte egin zituen han, Adaja eta Arevalillo ibaien ertzean, eta 1978ko irailaren 5ean utzi zuen lanleku hura; albaitari tituludunen lekualdatze-lehiaketan<sup>130</sup> parte hartua zen, eta orduko hartan, Suancesera joateko aukera egin zuen, Kantabriara. Irailaren 6an aurkeztu zen hango udaletxean.

Ohi baino denbora gehiago egin zuen Kantabria aldean, San Martin de la Arena ibaiaren ertzean, bost urte, baina ez berak hala nahi izan zuelako. 1981ean lekualdatze-lehiaketa egiteko deialdia egin zuten<sup>131</sup>, eta bi urteko atzerapenarekin argitaratu zituzten haren emaitzak<sup>132</sup>. Haiek atera orduko, Kantabrian zeukan postua utzi (1983ko uztailearen 6an), eta Moaña aldera jo zuen, Vigoko itsasadarrera; 1983ko uztailearen 9an hartu zuen hango postua, Jose Antonio Tasende Diaz zelarik Pontevedrako Osasun zuzendaria.

1984an, hamalau hirurteko onartu zizkioten.

1985eko urtarrilaren 1ean utzi zion lan egiteari, erretiroa hartzeko garaia iritsita. Pontevedran hil zen.

<sup>127</sup> BOE, 139. zbk, 1963/06/11.

<sup>128</sup> BOE, 263. zbk, 1963/11/02.

<sup>129</sup> BOE, 1976/01/13

<sup>130</sup> MA, 1978/07/27

<sup>131</sup> BOE, 1981/12/23.

<sup>132</sup> MA, 1983/05/23

### 3.10. Francisco Olivar Olivar<sup>133</sup> (Rueda (Valladolid), 1927/06/06–Madril, ?).

Felix Olivar Rentejo zuen aita, Ruedako semea (Valladolid), eta Teresa Olivar Gonzalez ama, Montejo de Arevaloko alaba (Segovia)<sup>134</sup>.

Madrilgo Albaitaritzza Fakultatean egin zituen ikasketak, eta 1952an bukatu zituen<sup>135</sup>.

Soldadutza egiten ari zela, Mendiko Ehiztarien 8. Erregimentuan aritu zen albaitari.



Animalien Elikadurari buruzko Ikastaroan parte hartu zuen, Madrilen, Zootekniako Albaitaritzza Elkarteak antolatuta.

1960ko azaroaren 12an, Zestoako albaitari tituludunaren postua hartu zuen, aldi baterako, eta 1961eko irailaren 29a arte aritu zen han; hurrengo egunean, Andoaingo albaitari tituludunaren postua hartu zuen, hori ere aldi baterako, eta 1962ko ekainaren 1ean utzi zuen.

1962ko ekainaren 12an, Azkoitiko albaitari tituludunaren postua hartu zuen, aldi baterako, Francisco Olivar Olivar jaunak<sup>136</sup>, Azkoitiko alkate Luis M<sup>a</sup> Mancisidor Alberdiren eta Udaleko idazkari Ramon Ciprian de la Rivaren aurrean. Garai hartan, Donostiako Aldamar kalean bizi zen Olivar jauna.

122. zenbakiarekin kolegiatu zen Gipuzkoako Albaitarien Elkargo Ofizialean.

1963ko irailaren 2an utzi zuen Azkoitiko postua, jabetzan eman baitzieten beste bati, eta, ondorioz, Mutrikukoa hartu zuen, aldi baterako. Aste batzuk baino ez zituen egin han: Albaitari Tituludunen Taldean sartzeko lehiaketa libreak gainditu<sup>137</sup>, eta Cati-ko postua hartu zuen, Castello-n. 1970eko otsaila arte aritu zen han; borondatezko eszedentzia eskatu zuen, eta Madrilera joan zen, laborategi batean jardutera. Eta hantxe hil zen, Madrilen.

Badakigu seme bat, behintzat, eduki zuela, Javier, Madrilen albaitari aritua, baina ezin izan dugu lortu informazio gehiago.

<sup>133</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M. (2003). *De Albéitares y Veterinarios municipales en el Valle del Iraurgi*. RSBA Pren Buletina, LIX. Liburukia, 2003-2, 527-595 orr.

<sup>134</sup> Ruedako EZ. 64m Liburukia, 155. or., 1. Atala, 310. idazpena.

<sup>135</sup> MAFAH. Tituluen Erregistro-liburua. 941. Idazpena.

<sup>136</sup> AzkUA. 2077-07 Biblioratoa.

<sup>137</sup> MA, 1963/10/08 (BOE 1963/10/23), lehiaketa librea, 1961/08/17ko Aginduaren bidezkoa

### 3.11. Francisco Iraola Salsamendi (Usurbil, 1923/10/30–Donostia, 1983/09/25).

Juan Iraola Mayoz zuen aita, albaitaria hura ere, Usurbilgoa, eta Teresa Salsamendi Errasti ama, Oriokoa. Aitaren aldeko aitona, Jose Maria, Goiazkoa zuen, eta amona, Dolores, Usurbilgoa; amaren aldetik, Oriokoa zuen aitona, Jose Justino, eta Usurbilgoa amona, Juana Josefa<sup>138</sup>.

Madrilgo Albaitaritzza Fakultatean ikasi zuen, eta 1946an amaitu zuen hango ikastaldia.

1947ko abenduaren 17ko Aginduak<sup>139</sup> ekarri zuen lehiaketaren bidez sartu zen Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldean; 393 albaitari onartu zituzten, eta 18. lekua eskuratu zuen.

1951n, Lekualdatze-lehiaketaren Erabakia<sup>140</sup> argitaratuta, Villabonan eman zioten postua, jabetzan.

Gipuzkoako Albaitarien Elkargo Ofizialean, 73. zenbakia egokitu zitzaion.

Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldeko Zerrenda bateratuan, 1951ko apirilekoan<sup>141</sup>, 1.810 zenbakiarekin ageri da, eta lanlekua, berriz, Villabonan duela esaten du; urtebete geroago argitaratu zen zerrendan ere<sup>142</sup>, Villabona du lanleku (urtebete eta hiru hilabete zeramatzen han zerbitzu ematen, postuaren jabe).

1963an argitaratu zuten Udal Ikuskatzaile Albaitarien Taldeko Zerrendan ere<sup>143</sup> ageri da; 1.763. zenbakia du, 4.855 kideetatik, eta Villabonan jarraitzen du.

1961eko azaroan, albaitari tituludunen hutsuneak betetzeko lehentasun-lehiaketara deitu zuten, eta han parte hartu zuen; 1962ko maiatzaren 2ko Aginduak<sup>144</sup> egin zuen behin betiko lehiaketaren emaitza, eta gure protagonista, hamar urtetik gorako antzinatasuna zuela, Andoaina bidali zuten.

<sup>138</sup> Usurbil EZ; 1. Atala, 5. Liburukia, 54. or.

<sup>139</sup> BOE, 32. zbk, 1948/02/01.

<sup>140</sup> BOE, 75. zbk, 1951/03/16.

<sup>141</sup> BOE, 289. zbk, 1952/10/15. Eranskina, 25. or.

<sup>142</sup> BOE, 289. zbk, 1952/10/15. Eranskina, 26. or.

<sup>143</sup> BOE, 263. zbk, 1963/11/02

<sup>144</sup> BOE, 124. zbk, 1962/05/24.



Andoainen ari zela, Albaitaritza Osasunerako Udal Araudia onartu zuen Andoingo Udaltzako, 1967ko ekainaren 15ean, Albaitaritza Osasuneko Probintzia Ikuskaritzaren aginduei jarraiki<sup>145</sup>.

1976ko urtarrilean, hilabeteko baimena eman zioten, eta Jose Leon Usabiaga Querejetak bete zuen haren lekua. Urte osoa egin zuen lanerako ezinduta<sup>146</sup>.

Gizartea Gastronomia Elkarteko bazkide zen (Donostiako San Martin kalean zuen egoitza).

Donostian hil zen, Lertxundi jenerala kalean zeukan etxean, laringeko kartzinoma baten ondorioz<sup>147</sup>.

### 3.12. Candido Mendizabal Cipitria (Andoain, 1927/01/07–2007/11/19).

Candido Mendizabal Cipitria, Andoingo Baltzuketako baserrian jaio zen, 1927ko urtarrilaren 7an. Candido Mendizabal izan zuen aita, eta Maria Dolores Cipitria ama, biak Andoingoak. Aitaren aldeko aitona, Candido Mendizabal Zaratarain izan zen, Andoingoak, eta amona, Dolores Bereyarza, Usurbilgoa; amaren aldetik, Jose Cipitria izan zuen aitona, Andoingoak, eta Eugenia San Sebastian amona, Donostiakoa<sup>148</sup>.

Aitona, Candido Mendizabal Zatarain<sup>149</sup>, Andoingo alkate eta zinegotzi izan zen behin baino gehiagotan. Nekazari ilustratua zen, karlista. Ramon Soralezek aipatzen du "La agricultura en Guipúzcoa" artikuluan, *Euskal Erria* aldizkariaren 47. zenbakian, eta esaten du nekazari eredugarria zela Gipuzkoan. Behi ugari zituen Andoingo Baltzuketako Handia baserrian.

Nekazaritzako Batzorde Bereziko kide izan zen Aldundian, eta azienda-lehiaketan sustatzaileetako bat XIX. mendearen bukaera aldera. Aldundiak Fraisoroko lurak erosi zituenean, Zizurkilen, tartean zen Candido aitona, eta Baserri Eskolaren hastapenetan ere esku hartu zuen: Suitzan azientak erosi zituen 1896an, Estalguneen lehen ikuskatzailea izan zen *de facto*, eta hazitarako zeuzkan Schwitz zezanak saldu zizkion Gipuzkoako Estalguneen Zerbitzuari<sup>150</sup>. Eta gauzak nola diren, Candido ilobak ere, etxalde hartan lan egin zuen hainbat urtez.

<sup>145</sup> GAO, 50. zbk, 1967/04/26.

<sup>146</sup> AndUA. Bo406-AG2002/7.

<sup>147</sup> Donostiako EZ; 3. Atala, 190. Liburukia, 523. or.

<sup>148</sup> Andoingo EZ, 1. Atala, 25. Liburukia, 265b or.

<sup>149</sup> Andoain (Gipuzkoa), 1841/09/04-1910/09/01

<sup>150</sup> BERRIOCHOA AZCARATE, P. *El sector agrario guipuzcoano y las políticas provinciales durante la Restauración*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 139. or. Donostia, 2009.

Aita ere, Candido Mendizabal Bereyarza, Andoingo alkate izan zen 1940an, zerbait hilabetez.

Zaragozan egin zuen Albaitaritzako Lizentzia; 1944-1949 urteetan aritu zen han, eta Indalecio Hernando zen idazkari garai hartan. Irakasleen artean, bereziki nabarmentzen zituen, Eduardo Respaldiza Ugarte jauna, Infekzioen, Parasitoen eta Ikuskaritzaren gaian eta Jesus Saiz Saiz-Pardo Biokimikan eta Fisiologian; ikaskideen artean, besteak beste, hauek eduki zituen: Isaias Zarazaga Burillo, denborarekin Genetikako katedradun egin zena, eta Madrilgo Gorteetako parlamentario, Carlos Compaire Fernandez, Joseba Mendarte Casares, Jose Luis Medrano Irurzun, Victor Garmendia Arcelus, Gabriel Ercilla Echeverria eta Ignacio Berraondo.

Unibertsitate Milizietako ikastaldia amaitu ondoren, egonaldi bat egin zuen Fraisoroko Intseminazio Artifizialeko Oinarrizko Zentroan, Zizurkilen, merezidun moduan, 1950eko abenduaren 14an; lanbidean gerora maisu izango zuena eduki zuen zuzendari, Gaudencio Arregui Ventura azpeitiarra<sup>151</sup>, zeina bezperan iritsia baitzen zentrorra (Arreguik sartu zuen intseminazioa Gipuzkoan); handik gutxira, Victor Garmendia Arcelusek egin zuen egonaldia, hark ere merezidun modura.

1951ko maiatzaren 1a arte egon zen Fraisoron; egun horretan, Errezilen hasi zen lanean, aldi baterako, hango albaitari tituluduna, Manuel Fernandez Arin, Zumarragara aldatu baitzen. Bi albaitari<sup>152</sup> lehiatu ziren aldi baterako postu horrentzat, Ignacio Lopez de Sabando Arruabarrena, Etxarri Aranazkoa (Nafarroa) eta gure protagonista. Bozketa egin, eta bost boto eskuratu zituen Candidok eta bakarra Ignaciok; berehala hartu zuen aldi baterako postua, eta han aritu zen 1953ko apirilaren 1a arte.

Gipuzkoako Albaitari Elkargo Ofizialean, 70. zenbakia egokitu zitzaion.

1951n Azpeitian egin zen azienda-lehiaketan, sei hilabeteko txahala aurkeztu zuen Candido Mendizabalek, Errezilgo Landarrain baserrikoa, Jose Ignacio Aldalurrena; Gaudencio Arreguik egindako intseminazio artifizial baten bidez sortu zen (hura Fraisoron sartu aurretik), eta ekitaldi hartako berritasun handia izan zen.



<sup>151</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M. *Tres veterinarios guipuzcoanos; D. Gaudencio Arregui Ventura, D. Vicente Larrañeta Chaitagnery D. Manuel Oñatibia Audela*

<sup>152</sup> Errezilgo Unibertsitateko Artxiboa. 1951ko Akta-liburua, 173. or.

1953ko ekainaren 2an, bere kabuz azterketa egitera joan zen Madrila, eta Intseminazio Artifizialeko Diploma eskuratu zuen (Espainiako tituluetan, 104.a). Urte horretan bertan, Albaitari Tituludunen Taldean sartu zen lehiaketa bidez, baina sekula ez zen egin postu baten jabe.

Miguel Salaverria Bengoecheak esanda –Aldundiko Abere Zerbitzuko burua zen–, Fraisoron sartu zen, 1953ko uztailaren 1ean, aldi baterako, orduko zuzendaria, Gaudencio jauna, nahiko pattal zebilen-eta osasunez.

Azienden Intseminazio Artifizialeko Oinarrizko Zentroaren Bulego Nagusiak lehiaketara deitu zuen<sup>153</sup>, albaitari laguntzaile baten postua betetzeko, eta gure protagonistak aurkeztu zuen bere burua.

Gipuzkoako Aldundiak, 1954ko urriaren 11ko batzarrean, hura izendatzea erabaki zuen: “*Visto el Acta del Tribunal calificador del concurso para la provisión de una plaza de Veterinario Ayudante de la Jefatura del Centro Primario de Inseminación Artificial Ganadera instalado en la Granja Provincial de Fraisoro, al que se ha presentado un solo concursante, don Cándido Mendizábal Cipitria de 27 años de edad y resultando de la misma que el Tribunal Calificador ha estimado que reunía las condiciones exigidas, por lo que propone se resuelva el concurso a su favor*”<sup>154</sup>.

Albaitari Elkargoaren kide ordezkari moduan, Miguel Bezares Sillerok parte hartu zuen Kalifikazio Epaimahaian, gerora Abeltzaintzako Probintzia arduraduna izango zenak.

1954ko urriaren 25ean hartu zuen Candidok postua, Aldundiko idazkariaren aurrean.

Intseminazio artifizialean jardutea oso gogorra zen garai hartan. Albaitariek ez zuten sinesten teknika horretan, eta are gutxiago abeltzainek. Emaiza onak lortzea beste aukerarik ez zegoen horiek guztiak konbentzitzeko. Pasadizo polita kontatzen du Enrique Zurutuza Altolaguirre jaunak, Azpeitiko albaitari tituludunak (hura ere aurrendari izan zen teknika hori erabiltzen): behi bat urarekin *intseminatu* eta ernaldtu egin zen. Baserritarrak, izan ere, ez zuten sinesten intseminazioan, baina ez zuten nahi inork ezjakintzat hartzerik, eta behia intseminazio zentrorra eraman ondoren, etxera joan eta ohiko zezenarekin estaltzen zuten.

Behia modu naturalean estalita, zenbait gaixotasun hartzeko arriskua izaten zen orduan, tuberkulosia, trikomoniasia, baginitisa, bruzelosia, baina gaur ia desagertuta daude.

<sup>153</sup> GAO, 1954/07/30.

<sup>154</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artxiboa (GFAA). 10806/5. Candido Mendizabal Zipitriaren espedientea.

Dena den, zailtasunak zailtasun, Intseminazio Artifizialeko Programa oso arrakastatsua zen Gipuzkoan 1956. urterako, eta denek onartzen zuten.

1956an, Madrilen egonaldia egin zuen Candido Mendizabalek, eta harekin zen Espainian intseminazio artifiziala sustatu zuen gizona ere, Domingo Carbonero Bravo, Talde nazionaleko albaitaria. Orduan baieztatu zuten, Estatu guztian inor ez zen iristen hilean 80 behi intseminatzen, eta Candidok, berriz, 100 egin zituen, eta emaitza onekin, gainera.

Gipuzkoan erabiltzen zuten teknika Gaudencio Arreguik asmatu zuen, eta Carbonero jaunaren esanetan, teknika hori ez zen egokia: “*Técnica no adecuada, surgida por generación espontánea*” zela esaten zuen. Abreschun motako pintza bat erabiltzen zuten, eta 2cc-ko xiringa bat, metalezko muturrarekin. Egia da teknika hori ez zegoela oso findua, eta ortodoxoa ere ez zen, baina leku gutxitan lortzen zituzten Gipuzkoan bezalako portzentajeak, eta inguruko herrialdeetatik jende asko etortzen zen Fraisorora, Arabatik eta Nafarroatik, adibidez, eredu bihurtua baitzen. Albaitari egin berri ziren gipuzkoar gazteek ere han ikasten zuten teknika, lehenik Gaudencioaren aginduetara, eta gero, gure protagonistak gidatuta.

1958ko urriaren 28ko Aginduari jarraiki<sup>155</sup>, aldatu egin zen gure protagonistaren administrazio-egoera, eta Albaitari Tituludunen Taldeko borondate bikain bihurtu zen.

1958ko azaroaren 19an ezkondu zen, Miren Isabel Eguibar Juanenarekin, Tolosako alaba bera. Lau seme-alaba izan zituzten, hiru gizonezko (horietako bat albaitaria), eta emakumezko bat.

1960ko urtarrilaren 30ean, Gipuzkoako Aldundiak hala erabakita, Azienden Intseminazio Artifizialeko Oinarrizko Zentroko albaitari arduradun izendatu zuten (Fraisoro Baserrian zegoen). Gaudencio Arregui Ventura jaunak eduki zuen ardura hori ordu arte, baina hura hil zenean, 1959ko urriaren 31n, haren lekua hartu zuen; ondorioz, hutsik geratu zen albaitari laguntzailearen postua.

1963an, Albaitari Tituludunen Taldeko Zerrenda argitaratu zuten<sup>156</sup>, eta 4.658 zenbakiarekin ageri da; boluntario bikainaren administrazio-egoera du, eta han esaten denez, 1953ko martxoaren 25ean sartu zen taldean.

<sup>155</sup> BOE, 271. zbk, 1958/11/12.

<sup>156</sup> BOE, 263. zbk, 1963/11/02.



1966. urtean, Espainian zeuden intseminazio-gune guztietako arduradunek lan-jardunaldi batzuetan parte hartu zuten Le Sigleko Intseminazio Zentroan, Orde departamentuan, Frantzia, eta hantxe izan zuten, lehenengoz, izozte-tekniken berri. Orduantxe hasi ziren zabaltzen mundu guztira, eta laster hedatu eta finkatu-ko ziren.

Euskadin, Derion jarri zuten teknika hori, Bizkaian, hango Intseminazio Artifizialeko Oinarrizko Zentroan, eta, ondorioz, Fraisorokoa itxi egin zuten. 80ko hamarkadan, ordea, Fraisoron ere hasi ziren erabiltzen.

1980ko uztailan, Sabino Irulegui Santacruz Aldundiko batzarkide eta Nekazari-tza Batzordeko lehendakaria lagun zuela (andoaindarra zen hura ere), Birmingham-en (Erresuma Batua) egitekoa zen Azienda Azokara joateko baimena eman zioten, Aldundiaren ordezkari moduan. Uztailaren 30etik ekainaren 3ra izan zen azoka, eta Erresuma Batuko Ganberak bidaia antolatu zuen euskal abeltzaintzat.

1981eko azaroaren 20an, erretiroa hartu zuen Gipuzkoako Abere Zerbitzuko zuzendariak, Sebastian Ubiria Elorza jaunak, eta Gipuzkoako Aldundiko Nekazari-tza, Merkataritza, Industria eta Energia Batzordeak, gure protagonista izendatu zuen, aldi baterako, postu hori betetzeko, eta Azienden Intseminazio Artifizialeko Zerbitzuan zeukan ardurarekin bateratu zuen lan berria. Lurrealde Historikoen Legeak, ordea, haize berria ekarri zuen Gipuzkoa plazan dagoen eraikin ederrera, eta berregituratu egin behar izan zuten Aldundiaren menpe ari ziren albaitarien egoera eta zeregina; 1985eko urriaren 15eko erabakiaren ondorioz deitu zuten meritu-lehiaketan<sup>157</sup> jardun zuen Kalifikazio Epaimahaiaren proposamenari jarraituz, Animalia Ekoizpeneko Sailaren buru izendatu zuten, eta Gipuzkoako Aldundiko langile bihurtu zen.

1992ko urtarrilaren 7an, 65 urte bete zituenean, erretiroa hartu zuen.

Oso atxikia egon zen Gipuzkoako Albaitarien Elkargo Ofizialari, eta erakunde horrek Ohorezko Kolegiatu izendatu zuen; elkargoak ekitaldiren bat egiten zuenean, hantxe izaten zen, emaztea lagun zuela.

2007ko azaroaren 19an hil zen, 80 urte zituela.

## ALDIZKARIAREN AURREKO ZENBAKITAN ARGITARATUTAKO LANEN ZERRENDA

<sup>157</sup> GAO, 1985/11/22.

**Relación de trabajos publicados en anteriores números de la revista:**

- AGIRRE LEIZEAGA, I.: "Otoño de 1918: Diario histórico-demográfico de la pandemia de gripe en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 195-254.
- AGIRRE LEIZEAGA, I.: "Levitón, Galtxagorri, Filomeno: destellos de una comedia", *Leyçaur*, 9, 2006, pp.181-224.
- AGUIRRE SORONDO, A.: "Las ermitas de Andoain", *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 65-140.
- ALIJOSTES OLASAGASTI, G.: "1876eko uztailaren 21eko foru sistemaren deuseztapen legearen ondorioz, estatuko soldadutzarako orokorraren ezarpena Andoainen" *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 159-193.
- ALIJOSTES, G.; GARMENDIA, A.: "Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakaera historikoa, XVII. mendearen bukaeratik XX. mendeko 30. hamarkadararte". *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 139-210.
- APARICIO ROSILLO, S.: "El contrabando de tabaco en Andoain durante los siglos XVIII y XIX", *Leyçaur*, 8, 2004, pp. 93-150.
- ARRUTI, X.; ETXEZARRETA, A.; IRIONDO, J.: "Burdina Leitzaran bailaran", *Leyçaur*, 8, 2004, pp. 9-91.
- ARTETXE FERNÁNDEZ, O.: "T.S.S.T. Konpainiaren tranbia eta trolebusak eta hauek Andoainen izan zuten eragina", *Leyçaur*, 9, 2006, pp. 121-180.
- AYERBE IRIBAR, M.R.; DÍEZ DE SALAZAR, L.: "Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Gipuzkoa", *Leyçaur*, 0, 1996.
- AYERBE IRIBAR, M.R.; " Jose Ignacio Tellechea Idígoras. In memoriam", *Leyçaur*, 10, 2008, pp. 9-16.
- BARRUSO BARÉS, P.: "Andoain en la II República. Partidos, elecciones y vida política (1931-1936)", *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 133-231.
- BARRUSO BARÉS, P.: " Poder político y representación social en Andoain durante el primer franquismo (1936-1951)", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 255-350.

- BARRUSO, P.; PICAVEA, P.: "Andoain en 1900: análisis demográfico, económico y social de un municipio guipuzcoano a principios del siglo XX", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 195-263.
- BENGOCHEA DORRONSORO, J.: " La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución 1850-1925", *Leyçaur*, 1,1990, pp. 139-173.
- CABALLERO, S.; GARCÍA, M.V.; HERNÁNDEZ, M.J.; RODRÍGUEZ, A.I.: "Elurraren negozioa: Onddoko elurzuloa Andoainen", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 9-44.
- DEL CAMPO OLASO, J. S.: "El órgano de la Iglesia de San Martín de Andoain", *Leyçaur*, 10, 2008, pp. 109-205.
- ETURA RODRÍGUEZ, J.A.: "Andoain izeneko tokia Tolosa udalerriko jurisdikziotik berezi eta udalerrri izaera juriskikzio zibil eta kriminala ematen dion asientoa eta errege-zedularen trasladoa", *Leyçaur*, 1,1990, pp. 7-15.
- ETURA RODRÍGUEZ, J.A.: "Andoain en el siglo XVII. Protocolos notariales de Villabona en relación con Andoain", *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 27-63.
- FERNÁNDEZ, J.J.; TRUTXUELO, M.: "Arkitektura industrialia Andoainen (1928-1942)", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 339-376.
- FERNÁNDEZ ALTUNA, J.J.: "Pedro Manuel Ugartemendia: XIX. mendeko arkitecto andoaindarra", *Leyçaur*, 9, 2006, pp. 9-60.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: "Sebastián de Leiza", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 9-38.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: "Andoain en la obra de Iztueta", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 245-253.
- GARMENDIA AYESTARAN, A.: "Bigarren guda karlista Andoainen", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 111-194.
- GONZÁLEZ, F.; MARTÍNEZ, M.; OTERO, L.: "Gerra zibilaren garaiko ume andoaindarren egunerokotasuna (1936-1939)", *Leyçaur*, 8, 2004, pp.195-260.
- GONZÁLEZ, F.; MARTÍNEZ, M.: "Andoaingo Algodonera, bertako langileak eta emakumeen ezaugarriak 1857-1965", *Leyçaur*, 9, 2006, pp. 63-119.

- HERNÁNDEZ EZQUERRA, K.: "Ubillos", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 9-36.
- IBAÑEZ, A.; RODRÍGUEZ, A.I.; GARCÍA, M.V.; HERNÁNDEZ, M.J.: "Actitudes de la comunidad de Andoain ante la muerte en los siglos XVII y XVIII", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 165-244.
- IBAÑEZ MENDIKUTE, L.: "Alberto Agirre musikaria eta Andoain", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 261-322.
- IRUSTA ORBEGOZO, J.M.: "Biografía de Nemesio Olariaga", *Leyçaur*, 10, 2008, pp. 63-108.
- LARRARTE ARREGI, E.: "Aita Larramendiren sendia. Dokumentu batzuk", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 39-163.
- LARRINAGA RODRÍGUEZ, C.: "Los saltos hidráulicos del río Leizaran y su contribución a la electrificación de Andoain y del País Vasco entre 1896 y 1936", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 195-224.
- LARRINAGA RODRÍGUEZ, C.: "El abastecimiento de agua en una localidad industrial guipuzcoana. Andoain, 1842-2000", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 147-194.
- LARRINAGA RODRÍGUEZ, C.: "Siglo y medio de historia del urbanismo contemporáneo en Andoain (1842-2000)", *Leyçaur*, 8, 2004, pp. 151-194.
- LASA BERGARA, X.: "Gerra aurreko eta ondorengo euskal antzerki herrikoia", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 265-356.
- LEMA, J.A.; MURO, K.; VÁZQUEZ, E.: "Andoaindarrak eta heriotza: hilkortasuna, jokaerak eta pentsamoldeak (1805-1845)", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 39-112.
- MUJICA ERKIZIA, A.: "Elecciones municipales en Andoain (1850-1915)", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 113-158.
- MURO ARRIET, K.: "Epidemias de cólera morbo en Andoain durante el siglo XIX", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 53-110.
- MURO, K.; SEGUROLA, M.: "Herrilanak Andoaingo eraikuntzan (1850-1900)", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 211-260.
- NIETO, I.; RECALDE, A.: "Protocolos notariales de Asteasu en relación con Andoain (1616-1645)", *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 7-26.

- OLAETXEA ELOSEGI, C.: "Buruntzako herrixkaren indusketa arkeologikoak, (1992-1996)", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 9-52.
- OLIVERI KORTA, O.: "Emakumearen egoera aintzin errejimenean Andoainen", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 99-138.
- OTAEGI, J.; OTAEGI, K.: "Guraso maiteak, itzuliko ez zen soldadu batek frontetik bidalitako gutunak", *Leyçaur*, 8, 2004, pp. 263-287.
- OTAEGI NEGREDO, K.: "La Primera Guerra Carlista en Andoain", *Leyçaur*, 1, 1990, pp. 71-137.
- OTAEGI NEGREDO, K.: "La transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 367-423.
- PÉREZ CENTENO, J.M.: "San Esteban de Goiburu, Andoain. Primer yacimiento localizado en el valle del Oria con niveles de la edad de hierro y época romana", *Leyçaur*, 10, 2008, pp. 17-62.
- RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, M.: "Andoain durante la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930)", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 255-338.
- RODRÍGUEZ, M.; URRUTIA, P.: "Andoain: postfranquismo y transición. Las elecciones legislativas de 1977 y 1979", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 279-490.
- RODRÍGUEZ PÉREZ, A.I.: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 45-146.
- RODRÍGUEZ RANZ, J.A.: "Burgos y Andoain: dos estrellas en el firmamento de Luis Miguel. La inmigración burgalesa a Andoain en el siglo XX", *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 233-243.
- RUIZ HOSPITAL, G.: "La Fundación Legarra-Echeveste", *Leyçaur*, 1, 1990, pp. 17-69.
- TRUCHUELO GARCÍA, S.: "Análisis de los principales rasgos políticos de la villa de Andoain en el seiscientos", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 9-97.
- TRUTXUELO GARCÍA, M.: "Laborde Hermanos: trayectoria histórica de una empresa", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 225-297.
- USABIAGA FLORES, A.: "Andoaingo toponimiaz", *Leyçaur*, 1, 1990, pp. 175-215.

- URRUTIA OCHOA, P. "El imposible alemán: memoria de la escuela de postguerra", *Leyçaur*, 5, 1998, pp. 299-365.
- URRUTIA OCHOA, P.: "De los años triunfales a los días sin postre: crónica de una posguerra en clave de hambre", *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 351-475.
- URRUTIA OCHOA, P.: "Variaciones sobre gris: adolescencia y vida cotidiana en el primer franquismo (Andoain, 1939-1951)", *Leyçaur*, 9, 2006, pp. 227-340.
- URRUTIA OCHOA, P.: "XXV años de paz y cinco mil días de paciencia. Andoain, 1952-1966", *Leyçaur*, 10, 2008, pp. 207-371.
- ZABALETA GARCIA, M.: "Los trabajadores en Andoain en los años treinta. Estructura de la población, nivel de vida y conflictividad social: 1931- 1936", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 323-377.